

# GUaiXE.net



**Binakakoan sakandarrak elkarren kontra**



Kirolak >> 13

**Musika asteburua: jaialdiak Arbizu eta Olaztiko gazte egoitzetan. Golden Apple Quartet bihar Altsasun eta gospela Etxarrin**



Kultura >> 15



**Nafarroako Kirol Mank-ak diru-laguntzarik gabe**

>> 11



## Suhiltzaileak, zerbitzu publiko baten kalitatea arriskuan

>> 9

**Irurtzungo Udalaren aurrekontua enplegua sortzeko**

>> 7

**Langabetuak trebatzeko ikastaro eskaintza**

>> 3

**Urtea 1.770 langabekurekin despeditu genuen**

>> 3

**Bide bihurtu bitartean Plazaolak 100 urte bete berri ditu**

>> 6



**Erabakitze eskubidearen aldeko giza katea**

>> 8



**Altsasuko Zumalakarregi plazako arkupea berritzen**

>> 9



**Helena Santano Ciden obra Altsasuko lortian**

>> 14

**MONTURA + KRISTALAK GOGORTUTA 68€**

**Sakana optika**

948 563 124

optikasakana@gmail.com  
lortia Plaza 11 • ALTSASU

+4 Estera +2 Zilindroa arteko graduazioak

# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



**Alain**  
ZORIONAK Alain!! Gure etxeko politena, 7 urte. Ondo pasa eta muxu asko aita, ama eta Uxueren partez. Maite zaitugu!

**Miren Sarasola**  
ZORIONAK printzesa!! Dagoeneko 4 urte bete dituzu. Muxu handi bat Jon, aita eta amaren partez.

**Aimar Navarrete**  
Imaz ZORIONAK!! 2 urte!! Muxu potolo bat zure familiaren partez.

**Amets**  
Atzo izan zela ematen du eta dagoeneko 13 bete dituzu! Ospatu eta gozatu! MUXU asko etxekoan partez. AMZ.



**Maria Higuero**  
ZORIONAK zure senarra eta semearen partez, oso ondo pasa kintadan!



**Mikel Imaz**  
ZORIONAK Txapeldun!!!



**Juana eta Seberiano**  
ZORIONAK Juanita eta Seberiano zebein urrezko eztaietan!! Ostatu Txiki Jubilatuta Elkarteko lagunak.



**Izan Torres Lazkoz**  
ZORIONAK ximpatiko! Muxu handi handi bet aita-txo ta amatxon partez zure bigarren urtebetetzean.



**Izan Torres Lazkoz**  
Muxu asko Arbizuko amiña, aittuna, osaba-izeba ta lehengusubben partes. Rubiales!

## Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

## ilbeltzak

# 24-30

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

### Musika

**Arkada Social+Eratu.** Ilbeltzaren 24an, ostiralean, 23:00etan Olatzagutiko Maisuena gaztetxean. OGA.

**Erase una vez... Los Golden.** Ilbeltzaren 25ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. Golden Apple Quartet.

**Raperos de Emaus+Pablo Hasel.** Ilbeltzaren 25ean, larunbatean, 23:00etan Arbizuko Argi Bidea elkartearen. AGA.

**The Upper Room.** Ilbeltzaren 26an, igandean, 18:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

**Gogoz.** Ilbeltzaren 28an, asteartean, 18:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Musika eskolako ikasleak.**

### Antzerkia

**Txan-txan-txantxetan.** Ilbeltzaren 26an, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Sambhu teatroa.**

### Bakarrizketa

**Confidencias de un futbolista.** Ilbeltzaren 24an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Zuhaitz Gurrutxaga.**

### Zinema

**Tierra prometida.** Ilbeltzaren 24an, ostiralean, 21:45ean eta ilbeltzaren 26an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**El consejero.** Ilbeltzaren 24an, ostiralean, 22:00etan eta ilbeltzaren 26an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Frozen en el reino del hielo.** Ilbeltzaren 25ean, larunbatean, 18:00etan, eta ilbeltzaren 26an, domekan, 17:00etan lortian.

### Mendi irteera

**Nazar-Codes.** Ilbeltzaren 26an,



igandean, 7:30ean Olaztitik abiatuko da autobusa. **Sakanako Mendizaleak.**

**Ergoienako bira.** Ilbeltzaren 26an, igandean, 10:00etan Lizarragako elizatik. 6 Km. **Sakanako Ikastolen mendi taldea.**

### Txirindula irteerak

**La nevera.** Ilbeltzaren 26an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 50 km. **Burundako mendi bizikleta taldea.**

### Erakusketak

**Oleos.** Otsailaren 14ra Urdiango Kaluxa tabernan. **Patricia Paats.**

**Orainetik iragana eta geroa eraikitzen.** Otsailaren 16ra arte Altsasuko lortia kultur gunean. **Helena Santano Cid.**

### Tailerrak

**Zure barra energetikoak egin.** Ilbeltzaren 24an, ostiralean, 20:15ean Altsasuko Lurrazpi tabernan.

### Bestelakoak

**Arakilgo Udalaren informazio saioa.** Ilbeltzaren 24an, ostiralean, 19:00etan Satrustegiko kontzeju-etxean.

**Badator Sakana gorria.** Ilbeltzaren 24an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Sakanako Ernai.**

**Action painting (Helena**

**Santano+DJ Jurgi Oraa.** Ilbeltzaren 24an, ostiralean, 20:00etatik 21:30era Altsasuko lortia kultur gunean. **Santanoren erakusketaren mustutzea.**

**Euskal Herriko VI. mus txapelketa.** Ilbeltzaren 25ean, larunbatean, 16:00etan Irurtzango Pikuxar tabernan.

**El Salvador bihotzean.** Ilbeltzaren 26an, domekan, 11:00etatik aurrera Altsasan.

**Etxarriko odol-emaielen festa.** Ilbeltzaren 26an, 13:00etatik aurrera Etxarri Aranazko Iturri Eder tabernan.

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Ilbeltzaren 24an, ostiralean, 20:00etan Irurtzango, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Inposiziorik ez! Guk Gureak!** Ilbeltzaren 26an, igandean, 13:00etan Uharte Arakilgo plazan. Herri mosaikoa osatzeko.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Ilbeltzaren 26an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Sakanako Langabetuen Asanblada.** Ilbeltzaren 27an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

**Argia gure iluntasunean, argiaren igoerari ez!** Ilbeltzaren 29an, asteazkenean, 11:00etan, Altsasuko azokan, kontzentrazioa. **Sasoia.**

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM  
**beleixe** online  
www.guaixe.net

Piztu irratia!

## ASTEBURUKO AGENDA

**ASTEKO ERREPASOA:**  
albisteak, kirolak,  
Jone Rubio, Golden Apple Quartet-en  
kanta altsasuarra...

Esataria: *Maidier*

# Elkarrekin bidea egiten

abenduak  
**bierrik**  
**20**  
urte

maiatzak 3  
**beleixe**  
**15**  
urte

**GUaiXE.net**  
astekaria  
**10**  
urte



Zoila Berastegi

## astekoa

## barrutik kanpora

## Zein da zure bidea?

Euskal Herria euskararen herria dela jakin badakigu; euskalduna, euskara duna. Misterio bat da oztopoak oztopo, nola iraun duen gure ama hizkuntzak mende mende gure artean, gure barnean, batetik bestera eta hemendik hara. Mendiek babestua agian; jendartearen burugogortasunak eta ausardiak bultzatua behar bada, nork daki. Baina ziur nago, funtsean maitasuna eta kontzientzia izan direla euska-

raren biziraupenean ezinbesteko. Batetik geurea den horreganako, gu egiten gaituen horreganako maitasuna. Bestetik, aldiz, ondare kultural bat galtzen ez uztearen kontzientzia. Eta burua bihotzarekin eta bihotza buruarekin elkartzen ditu ahoak. Ahoa da zubia, tresna, lanabesa. Hizkuntza bat izango bada hitz egiteko da eta hitz egiten delako da.

Baina geure euskara gaur arte

iritzi bada ere, euskal hiztun komunitatea gaixo dagoelakoan nago. Haur askok euskara ikasten duten arren, heldu asko euskalduntzen diren arren, euskaldun zahar asko gauden arren, euskaraz bizitzea ez da erraza. Borondatea, nahia, erabakia eta gogoa piztu behar dira norberarengan, eta elkar kutsatu. Argi dago, euskal jendarteak izango dela gako, instituzioetatik ezer gutxi espero baitaiteke. Eta bes-

tela ez dago Nafarroako parlamentura begiratu besterik: D modeloko ikastetxeak modelo erdaldunekin elkartu nahi dituzte elkarbizitzaren izenean, bi hizkuntzen arteko desorekari entzungor eginez. Euskaraganoraz barneratzea eta horretarako bermeak jartzea da elkarbizitzarako lehen pausoa. Nik nigandik desberdinak direnekin elkarbizi nahi dut, nola ez, baina euskaraz bai, euskaraz blai.

## hara zer dien

## Eta orain?

Gure artean denok ezagutzen ditugu edo ezagutu ditugu behar bereziak dituzten pertsonak: behar fisikoak, psikikoak edota kognitiboak.

Gizartearen oraingo garapeneri esker denok ikusten dugu arrunt, inongo zalantzarik gabe, pertsona hauek beren beharretara egokitutako hezkuntza jasotzea, enplegurako lantoki berezietan lan egitea, lantokiak egokitzea...

Baina orain dela 50-60 urte ikuspuntua ez zen horrelakoa.

Behar bereziekin jaiotzen zen haurra etxean geratzen zen, ama,

aita eta etxekoen altzoan. Gero ardura etxean gelditzen zenaren gan erortzen zen.

Orain gauzak desberdinak dira. Etxean gelditzen denak normalean kanpoan beste lan bat dauka eta ardura hori ezin du onartu.

Azken garaiotan Gizarte Zerbitzuetan orain dela 50-60 urte jaiotzeko "haur" horien familiak etorri izan zaizkigu. Hainbat egoera dago, familia adina egoera.

Baina eskaera komuna: gurasaok, bizitza osoan zaintzaileak izan direnak hil dira edota gaitasunak edo adina direla eta, ezin dute gehiago zaintza hori

aurrera eraman.

Eta... orduan zer? Sakanan ez dago bizileku alternatiborik pertsona hauentzat. Ezin dira bakarrik bizi, geriatriko batean bizitzeko gaztegiak dira eta...

Nafarroan osoan ere ezgaituentzako plaza gutxi dago, bai zentroetan, bai tutelapeko pisuetan.

Familientzat buruhauste ikaragarria da. Behar bereziko pertsona hauen zentzuzko guraso, beraien adina aurrera doala ikusita, etorri izan dira beraien seme-alaben geroa ziurtatzeko asmoarekin dauden aukerengatik galdetzeraz.

Anaia-arrebak dauden kasue-

tan arazo "moral" ere sortzen da. Orain arte ama eta aita egon direnez gure anaia edo arrebak babestuta egon da, etxean. Eta orain... guk ezin dugu atenditu gure familiak, gure lanak ditugulako... Nola ulertu behar du orain zentro batean bizi behar duela? Eta herritik urruti, gainera?

Oso garbi ikusten dugu baliabide falta dagoela eta arlo hau garatzeko lan handia egin behar dela.

## Sakanako Gizarte Zerbitzuak

## gutunak

Atal honetan ahalik eta irizki gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

gutziak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

## Olatzagutiak euskararen legearekin talka egin du

Joseba Otano Villanueva, Administrazioan Euskaraz Taldea

Administrazioan Euskaraz taldeak Olatzagutiako Euskararen Ordenantzaren defentsan atera nahi du. (...)

Euskara sustatzeko asmoz, euskaraz bakarrik erabiltzeko irizpideak hauexek izan ziren: testuaren grafia antzekoa denean euskaraz eta gaztelaniaz; mezua-

ren edukia argi eta garbi adierazten duen piktogramak osatzen duenean; eta ezagutzera eman beharreko jarduerak eta hartzailaren berezitasunek horretara behar dutenean. Nafarroako Administrazio Auzitegiak balio gabetu ditu irizpide horiek eta euskara bakarrik erabiltzeko aukera.

Olatzagutiako egoera soziolinguistikoa ez da une honetan UEMAn sartzeko modukoa, baina euskarak mendeetan zehar

jasandako jazarpena da arrazoia. Euskara sustatzeko eta hizkuntza nagusia bihurtzeko asmoa badute herritarrek. Horrexegatik, Udalean duten ordezkariak onartu zuten Euskararen Ordenantza hori. (...)

Edozein modutan, testu elebidunetan euskarari lehentasuna ematea eta komunikazioak euskara hutsez bidaltzeko horrela jaso nahi dituzten herritarren zerrenda egitea legaltzat jo ditu Nafarroako Administrazio Auzi-

tegiak. Baita euskara lan hizkuntza moduan erabiltzeko Ordenantzak araututakoa ere.

Gure taldeak uste du Olatzagutiako Euskararen Ordenantzarekin gertatu dena konpontzeko Euskararen Legea eta Euskararen erabilera arautzeko Foru Dekretua aldatu behar direla, euskaraz bakarrik erabiltzeko Ordenantzak barneratzen zituen irizpide horiek legalak izan daitezten.

Osorik [www.guaixe.net-en](http://www.guaixe.net-en)

Azkenik, 2014-rako ekintza eta aktibitate berriz osaturiko programa bat aurkezten dizugu. Sakantzen Sareak pertsona proaktiboz osatutako taldea izan nahi du eta ekintzaileen arteko topaketak bultzatu nahi ditu. Horretarako, 4 jardunaldiz eta beste hainbeste formakuntza saioz osaturiko egutegia eskaintzen dizugu.

Guk Sakantzen Sarean parte hartzera gonbidatzen zaitugu! Nola? sakantzenarea@gmail.com emailera idatziz edota datorren otsailearen 15ean, 10:00tan, Altsasuko Gure Etxean ospatuko dugun IV. Topaketetara hurbilduz, esate baterako.

Animatu eta etorri!

*Zuk zeure bidea aukeratzeko zuzen! Zuk zeure norakoa egiten duzu! Denok batera urrunago iritsiko gara!*

**Sakantzen Sarea**

## Guaixe

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • [guaixe@guaixe.net](mailto:guaixe@guaixe.net)  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • [publizitatea@guaixe.net](mailto:publizitatea@guaixe.net)  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.net](mailto:publi@guaixe.net)  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano  
**ZUZENTZAILEA:** Patxi Flores  
**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • [bierrik@guaixe.net](mailto:bierrik@guaixe.net)  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • [argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

## LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
 s a k a n a

**BAZKIDEAK**

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikako Salburordetza

**LEKUNBERRI MCA-UGT ZUZENDARITZAN:** Ostiralean UGTko MCA (Metal, Construcción y Afines) federazioak 10. kongresua egin zuen. Bozen %94arekin Lorenzo Rios idazka-

ri nagusi izendatu zuten. Berritutako zuzendaritzan dago Portlandeko enpresa batzordeko buru Javier Lekunberri Urabaien.

# sakanerria >>

## SAKANA

# Abenduan 73 langabe gehiago

Bederatzi hilabeteko beherako martxan eten egin zen. 1.770 langabe daude, duela urte bat baino 94 gutxiago

Sakanako langabe kopurua agorrilekoaren parekoa zen urtearen akaberan. Otsailean 2.021 langaberen errekor tristea lortu ondoren, langabeziak bederatzi hilabetez behera egin zuen Sakanan, baina azken hilabetean asko izan da enplegu bulegoetan izena eman duten sakandarren kopurua: 73 pertsona. Sakanan Nafarroako langabeziaren %3,44 dugu (herrialdearen %3,22 populazioa gara).

Urte akaberan langabezia zeuden 1.770 sakandarretatik 872 emakumezkoak ziren (%49,27, 54 gehiago) eta 898 (%50,73, 19 gehiago) gizonezkoak. Adinari dagokionez, lan bila ari diren gehienek 25 eta 44 urte artean dituzte, 809 (%45,71, 43 gehiago). 45 urtetik gora eta lan bila dabilen 791 sakandar zeuden urte akaberan (%44,69, 35 gehiago). 25 urte baino gazteago diren 170 sakandar ari dira lan bila (%9,6, 5 gutxiago).

Sektoreei dagokienez, langabetuen %54,41k (963, 30 gehiago) zerbitzuetan lan egingen luke. Langabeen %30 (531, 38 gehiago) industriari arikolizateke. Eraikuntzan lanegiteko prest legoke %7,91 (140,

Langabezia udalerrika. Abendua		
Udalerrria		Guztira
Altsasu	870	37
Arakil	64	-4
Arbizu	69	0
Arruazu	3	1
Bakaiku	15	0
Ergoiena	8	2
Etxarri Aranatz	174	19
Irañeta	10	1
Irurtzun	191	-10
Iturmendi	22	5
Lakuntza	82	6
Olatzagutia	136	11
Uharteko Arakil	60	6
Urdiain	38	9
Ziordia	28	2
<b>Guztira</b>	<b>1.770</b>	<b>73</b>

berdin). Lehen sektoreak, berriz, lan eskaeren %1,81 jaso du (32, 2 gutxiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez eta lan bila dabilen %5,88 dira (104, berdina).



Langabeziaren garapena			
Urtea / hilabetea	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
2008 / 06	599	235	364
2008 / 12	879	395	484
2009 / 06	1.230	619	611
2009 / 12	1.342	630	712
2010 / 06	1.438	666	772
2010 / 12	1.500	672	828
2011 / 06	1.505	698	807
2011 / 12	1.603	764	839
2012 / 06	1.661	794	867
2012 / 12	1.864	924	940
2013 / 06	1.842	941	901
2013 / 12	1.770	898	872

## Ibarreko bi enpresa Berdeago azokan

**Gaur 12:00etatik 20:00etara eta bihar-etzi, berriz, 10:00etatik 20:00etara**

Gaurzabalduko ditute atean Durangoko Landako gunean Berdeago, euskal ingurumen iraunkortasun azokak. Igandea bitartean energia eraginkortasun, mugikortasun jasagarria eta birziklapena eta berrerabilpena lantzen dituzten 50 enpresak euren ekoizpenak erakutsiko dituzte. Berdeago azokaren bigarren edizioan enpresa sakan-darrak ere izanen dira: egurrez-

ko pellet erregaia ekoizten duen Etxarri Aranazko Naparpellet eta eraikuntza material ekologikoak ekoizten dituen Altsasuko Biohaus enpresa.

Berdeago azokak, bestalde, biztanleria ingurumen iraunkortasunaren inguruko kontzientziazteko hainbat gune dituzte: Hitz berdea, hitzaldiekin zuzendutakoak; Zirkulo berdeagunea, umeendako ekintzak, gainera, auto, moto, zein bizikletan probatzeko bi zirkuitu ere izanen dira.

**Egitaraua: www.guaixe.net**



Fiturko Nafarroako standaren aurkezpena.

## Ibarra Fiturren

Herenegun hasi eta igandea bitartean Fitur, turismoaren nazioarteko azoka ospatuko da Madrilan. Nafarroako Gobernuak jarri duen standean gure gastronomiaren bikaintasuna nabarmenduko du. Hala, hainbat eragilerekin batera sortutako

Nafarroa, mahai onaren Erresuma ibilbidea aurkeztuko da. Haren barruan sartuak daude ibarreko hainbat jatetxe, Uharteko Arakilgo Artzain eguna eta Arbizuko Txistor eguna, Plazaola bide berdea eta Idiazabal gaztatorri izendapena.



# Langabetuak trebatzen

**Otsailetik garagarriera gaztelania, matematikak eta teknologia ikastaroak eskainiko dira**

Hezkuntza Departamentuak prestakuntza gutxi duten eta oinarrizko titulaziorik ez duten langabetuei zuzendutako ikastaroak eskaini zituen irailean. Lan munduan sartu ahal izateko langabe horiek garrantzitsuak diren gaitasunak eskuratzeko modua izan dute horrela. Ikastaroa gainditzen dutenek 2. mailako profesionaltasun ziurtagiria jasoko dute. Harekin Nafarroako Enplegu Zerbitzuak antolatutako ikastaroetan izena emateko aukera izanen dute.

Hala, iraila eta otsaila artean, 17 langabetuk gaztelania eta matematika ezagutzak hobetu dituzte Altsasun. 40 urte baino gehiago duen bertako emakumea, hori da izena eman dutenen profila.



Gobernuko kideak ikastaroen otsaileko deialdiaren aurkezpenean.

### Deialdi berria

Otsaila eta garagarri bitartean prestakuntza gutxi duten langabetuak trebatzeko Altsasun hiru ikastaro izanen dira: matematikak, gaz-

telania eta teknologia. Otsailaren 7ra arte eman daiteke izena Altsasuko enplegu bulegoan edo Nafarroako Gobernuaren web orriaren bidez, zerbitzu katalogoan sartuta.

**BUJANDA**  
okindegia

Tel.: 948 467 503  
Kale Nagusia 31, OLAZTI

**HIJOS DE GOIKOETXEA**  
EDARI BANATZAILA

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu  
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es

## Plazaola tren

&gt;&gt; Aizkorbe / Irurtzun

## Plazaola trenaren urteurrena

Igandean Lekunberrin ospatu zen martxan jarri zela Plazaola trenbidea. Hura pasatzen zen udaletako ordezkariak eta Plazaolako bide-berdea egiten laguntzen ari diren erakundeetako kideak izan ziren urteurrenaren harira Lekunberrin antolatu zen ekitaldian.


## Hasiera

Leitzarango Bizkotz meategitik burdin mea Andoainera eramateko 21,1 km-ko trenbidea egiten hasi ziren 1902an. 1904ko ilbeltzaren 25ean zabaldu zen trenbidea hura. Minerala Andoaindik Pasaiako portura eramaten zen.

1908ko lege batek estrategikotzat jo zuen trenbidea bidez Iruñea eta Pasaiako portua lotzea eta Leitzaingo trenbidea erabiltzea otu zitzaion. Hala sortu zen Iruñea eta Andoain arteko tren zerbitzua, Plazaola tren. Manuel Alonso Zabala ingeniari donostiarrek zuzendu zuen proiektua, mea garraiatzeko tren bidaia iramaterako bihurtu zuena. 13 milioi pezetako aurrekontua izan zuten lanek.

## Aurreneko bidaiak

Etxajuen leherketa artean, 1914ko ilbeltzaren 19an, igandean, 9:15ean



Plazaola tren Iruñetik ateratzen.

abiatu zen Iruñetik edertutako tren (Maffei etxe alemaniarreko Krauss lokomotora modelo, bagoiak Beasainen karrozatuak). Barruan agintariak eta gonbidatuak zihoazen. Irurtzundik pasazenean etxaju gehiago leherrazizituzten. 11:00ak pasatxo zirenean elkartu ziren Iruñetik eta Donostiatik abiatutako trenak Uitzin. Txistulari eta bandarekin egin zieten harrera. Iruñeko gogozin Fray Jose Lopez Mendo-

zak trenbidea eta tren bedeinakatu zituen. Trenak Iruñera bueltatu ziren. Hurrengo bidaiak 16:30ean abiatu zen Nafarroako hiriburutik. Baina publikorako aurreneko bidaiak ilbeltzaren 25ean egiten hasi ziren.

Lau hamarkadaz lotu zituen Plazaolak Iruña eta Donostia. 30eko hamarkadan errepideko garraioa garatzen hasi zen: kamioiak eta autobusak. Horrek Plazaolaren erabilgarritasunari eta errentagarri-

## Beste urteurrena

Aurten, agorriaren 15ean, 150 urte beteko dira tren Altsasura iritsi zela. Madril-Irun linea mustu zen horrela.

tasunari okerrerako eragin zion. 1936ko gerrak eta ondorengo urteak berpiztuzuten tren, autobusendako erregairik ez baitzegoen, baina bai ikatza. Gainera, orduko ekonomia premiak bultzatuta kontrabando edo estraperlorako elementua ere izan zen.

Egoera horrek gutxi iraun zuen. 50eko hamarkada hasieran galera handiak zituen trenak. 1953ko uholdeek zerbitzua bertan utzarazi zuten, zubi bat hautsi eta trenbidean kalte handiak sortu zituelako. Guztia konpontzeak inbertsio handia eskatzen zuen. Nafarroako Diputazioan negoziatzen zuten bitartean, Madril trenbidea kentzeko baimena eskatu zuten, eta lastailaren 15ean jaso zuten hura. 1959an kendu zituzten errailak eta haien salmentatik lortutako diruarekin kendu zituzten zorrak. 1968an trenbideko lurak enkan-tean saldu ziren.

## &gt;&gt; Bakaiku



## Errausketaren kontrako seinaleak

Bakaikuko Udalak herri sarreran errausketaren kontrako seinaleak jarri berri ditu. Haietan honakoa irakur liteke: udalerrri honek errausketa gaitzesten du. Joan den urteko garagarriaren 26ko udal bilkuran aho batez hartutako erabakia bete du horrela Bakaikuko Udalak.

## SAKANA

## Belenzaleen zozketa

Sakanako Belenzaleen Elkartean herenegun hasi zen bere egoitzan jarria duen erakusketa kentzen. Eguberrietan makina bat jende pasa da Olatzagutiko jaiotzen erakusketatik. Elkarteko kideak pozik daude jendearen erantzunarekin. Jaiotza baten zozketarako txartelak ere saldu zituzten eta zenbaki saritua 212a izan dela jakinarazi dute. Saria jasotzeko elkartearen egoitzatik pasa beharko da arratsaldean.

## &gt;&gt; Arakil

## Arakildarrak sagardotegira

Otsailaren 15ean, Ikaztegiako Begiristaintolara sagardotegira joateko eskaintza egin du Arakilgo Udaleko Kultura Batzordeak. 18:30ean kontzejuetatik abiatuko lirerateko 21:00etan afaltzen hasteko. Horren ondoren, Beasainen buelta emanen dute, 3:30ean etxerako buelta hartzeko. Interesatuak otsailaren 5era arteko epea dute udal-txean izena emateko (948 500 001 eta info@arakil.net). Arakilen erroldatutakoek 24 euro ordaindu beharko dituzte, gainontzekoek 27.

## &gt;&gt; Altsasu

## Altsasuk hartuko du ibarreko eskola publikoen festa

Arbizuri lekukoa hartuta, maiatzaren 10ean, Zelandi eskola publikoak Sakanako eskolen festa hartuko du. Irurtzongo, Lakuntzako, Arbizuko, Etxarri Aranazko, Iturmendiko, Urdaingo, Altsasuko eta Olatzagutiko ikastetxe publikoetako guraso elkarteak eta Sortzen-ek parte hartu dute ospakizunean. Hilaren azken egunean Sortzenek ibarrean egin dako ibilbidearen berri eman eta jai-eguna aurkeztuko dute.

## &gt;&gt; Bide-berdea

Baiona eta Iruñea lotuko duen bizikleta bidearen zati izanen da Plazaolak bide berdea, Euroziklo egitasmoan dagoena. Gaur egun, Getaria (Lapurdi) eta Doneztebe arteko 70 km-ak eginak daude. Saldiasen eta Urritzan barna Plazaolako bide berdearekin lotzea da asmoa.

Gaur egun Plazaolako bide berdean Andoain eta Mugiro artean ibili daiteke. 50 km eskas. Irurtzun eta Mugiro arteko 6,5 km-ak ere eginak daude, mustu ez badituzte ere. Hala ere, arazoa Mugiron

## Sakanan

Plazaolak 85 km-ko ibilbidea zuen. Haietatik 2,3 Sakanan. Bere bidean zituen 66 tuneletatik bi Sakanan daude, Aizkorben (620 metro) eta Irurtzunen (Artadikoa, 180 metro). Biak ere luiziengatik itxiak daude gaur egun. 17 geltokietako bat Irurtzongoa zen, egun desagertua dagoena.

dago. Bide berdea nondik eraman aztertzen ari dira eta proiektua egi-



Artadiko tunelaren ahoa.

teko dago oraindik. 2 km-ko zati bat da egitea falta dena Irurtzun eta Andoain arteko bidea egin ahal izateko. Bestalde, Irurtzun eta

Iruñea arteko zatian lurra desjabetzeko prozesua martxan da eta aurten eginez gero lanak 2015ean hasiko lirerateko.

## SAKANA

## El Salvadorko FMLNren gobernuaren aldeko ekitaldia

Farabundo Martí de Liberación Nacionalen (FMLN) gobernuari zuzendutako berebiziko garrantzia duela adierazi dute. Hari babesa eta elkartasuna adieraziko diote

Otsailaren 2an El Salvadorren presidentea aukeratzeko hauteskundeak egingen dira. Hori dela eta El Salvadorren Lagunak ekimenak FMLN-eko Salvador Sanchez Cerén hautagaiaren aldeko kanpaina antolatu du iganderako

Altsasun. Aurrera El Salvadorko jendea leloa du deialdiak.

Ekimenetik azaldu dutenez, lehen itzulian presidente kargua eskuratzeko aukera du FMLNko hautagaiak, eta aurreko legegintzaldian Frentek "herrian aplikatutako politika sozial berriak" segida izanen lukete, aurreko urteetan "eskuindar gobernuak baztertuta izan dituzten herritarren gan positiboki eragin dutenak". FMLNeko euskal lagunek azaldu

dutenez, Frentearen beste lehentasun batzuk dira: herriaren bizikaltatea hobetzen jarraitzea, memoria historikoaren inguruan lana egitea, El Salvador ALBAN sartzeko aurrerapausoak ematea edota "Buen Vivir" logikaren baitako politikak aplikatzea.

## Elkartasuna

Ekimenetik nabarmendu nahi izan dute El Salvador eta Euskal Herriaren arteko elkarrekiko

## Egitaraua

**11:00etan** Iortia plazan umeendako puzgarriak eta pailazoa. Puposak (artozko tortila beteak) egiteko tailerra.  
**12:00etan** Ekitaldi politikoa Iortia kultur etxean. Aurkezpena, bertsolariak, FMLNren ordezkaria, Marta Gonzalez, Pakito Arriaran eta Begoña Garciaeren sendie omenaldia eta Fermin Balentzia.  
**14:00etan** Bazkaria.

elkartasunak urte asko dituela. Besteak beste, Ertamerikako herrialdean hildako Pakito Arriaran, aita Ignacio Ellacuria, Begoña Garcia edo Marta Gonzalez aipatu dituzte. Aldi berean, FMLNren aldeko atxikimendu kanpaina martxan jarri dute elsalvadorrrenlagunak@gmail.com helbidearen bidez bidali daitekeena.

## » Irurtzun

# Enplegua sortzeko kontratazioak, udalaren aurrekontuen ardatzetako bat

**Udalak 155.400 euro bideratuko ditu arlo horretara eta 105.000 inbertsioetara**

Irurtzun Bai eta Bilduren aldeko bozekin eta UPNren abstentzioarekin, abenduaren 27an, Irurtzunge Udalak aurtengo aurrekontuak onartu zituen. 1.871.000 euro kudeatuko ditu udalak aurtun. Txiki Iriarte alkateak nabarmendu nahi izan du udalaren enplegu politikaren oinarria zuzeneko kontratazioak direla.

Lau ildo erabiliko ditu udalak enplegua sortzeko. Alde batetik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek kudeatzen duten Babestutako Gizarte Enpleguaren bidez 3 pertsona kontratatuko dira urte erdirako. Gobernuaren diru laguntzaren arabera jende gehiago kontratatuko luke udalak. Horretarako udalak 20.400 euro bideratu ditu. Bestetik, zuzeneko kontratazioak egiteko 37.600 euro aurrekusi ditu Irurtzunge Udalak. Diru horrekin 6 pertsona kontratatuko ditu. Nafarroako Gobernuaren deialdiaren arabera gehienez 9 langile hartuko lituzke udalak. Bestalde, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren programak erabiliko udalak kontra-



Udalak gutxienez 21 pertsona kontratatuko ditu.

tazioak egiteko (6, urte erdirako) eta horretarako 30.000 euro bideratu ditu. Aipatu pertsonak garbiketa eta kale eta lorategien mantenu lanak egingen dituzte. Azkenik, udan igerilekuan lan egiteko lau sorosle eta mantenu lanak egiteko 2 pertsona kontratatuko dituzte eta horretarako 32.400 euroko poltsa aurrekusi du udalak.

Udalaren zuzeneko kontratazio politika horretan salbuespen baka-

rrakiroldegiaren mantenuaren alokairua da, zeinagatik udalak urtean 30.000 euro ordaintzen dituen.

## Irakaskuntza

Bere ardura baztertuz, Nafarroako Gobernuak udalari urtetik urtera gero eta diru-laguntza eskasagoa ematen dio hezkuntza zerbitzuak mantentzeko. Horregatik, gainontzeko udalen moduan Irurtzungeak bere poltsatik diru gehiago jarri

beharra du. Aurtun Atakondoa eskola publikora 226.000 euro bideratuko ditu (atezaintza eta garbiketa sailak barne).

Bestalde, musika eskolaren aurrekontuaren (116.000 euro) herena Nafarroako Gobernuaren kontura behar luke, baina %12 (14.300 euro) besterik ez du ordaintzen. Ondorioz, hari eustearen zama udalaren (%47,5) eta gurasoen (%40,5) bizkar gelditzen da.

## Bestelako inbertsioak

Festak eta erromeriak	61.800 €
Kultura Kontseilua	50.000 €
Mank-eko Euskara Zerbitzua	42.300 €
Kirol taldeei diru-laguntzak	29.650 €
Kirol ikastaroen programa	25.000 €
Kultur eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	13.000 €
Mank-eko Kirol Zerbitzua	12.700 €
Gaztetxokoa (langileak barne)	12.370 €
Irurtzunen euskara sustatzeko	11.600 €
Itxesia mendiko urak jasotzeko lanak	11.500 €
Elkartasunerako %0,7	11.000 €
Baratze ekologikoak	
Arbaso-Montikon	11.000 €
Berogailuan energia aurrezteko neurriak	10.000 €
Atakondoko lanak	10.000 €
Kultur etxeko tresneria hobetu	7.000 €
Mank-en Immigrazio Zerbitzua	5.500 €
Liburutegirako funtsak erosteko	3.500 €
Udaletxeko informatika tresnen hobekuntza	3.000 €
Musika eskola margotzea	3.000 €

## Aurrekontuaren %2

Irurtzunge Udalak kopuru hori, 35.000 euro, bideratuko du aurtengo aurrekontu parte-hartzaileetarako, aurreko urtean baino 14.500 gehiago. Haiek sustatzen dituen taldea dagoeneko lanean ari da.

## » Olatzagutia

## Mank-ek bertan behera utzi du Larunblaiko parte-hartzaileen euskara proba

Asteburutik aurrera Olatzagutiko Larunblai jardueran izena eman zuten guztiek parte hartzeko aukera izanen dute. Aurretik arituak baziren ere, Mank-ek hasiera batean izena emandako bi gaztetxo kalean utzi zituen euskara mailagatik. Baina esan bezala, asteburutik aurrera jardueretan parte hartzeko aukera izanen dute.

Larunblai, Mank-eko Euskara Zerbitzuak antolatu eta Topaguneak kudeatzen duena, D eredu-ko ikasleei zuzendutako jarduerak da. Haren helburua aisialdiaren bidez haur eta gazteen artean eus-

kararen erabilera bultzatu eta eremu informalean euskarazko harreman-sareak sortzea da. Helburu hori lortzeko, "aurreko urte-etako esperientziak erakutsi digu Deredukoak ez diren neska-mutil batzuek ez zutela behar zen maila, eta horregatik aurtun zorrotzagoak izan gara irizpide horrekin", adierazi dute Mank-etik.

## Probaz

Bi haurren gurasoen kexua Mank-ek bere egin zuen Nafarroako Arartekoaren eskaera: "Larunblain parte hartzeko interesa dute-

nek euskara maila egokia dutela ziurtatzeko modurik egokiena izena eman duten guztiei gaitasun proba bat egitea dela".

Mank-ek ikasturte honetan jarri nahi zuen neurri hori mar txan, "beti ere jardueraren helburuak betetzea bermatu nahian". Horregatik, Mank-ek euskara proba egiteko eskaera egin zion Euskarabideari. Nafarroako Gobernuaren menpeko erakundeak erantzun zuen prest dagoela etorkizuneko edizioetan euskara proba egiteko, baina aurtun berriz ez. Mank-ek jarrera hori ez du uler-

tzen. Horregatik, "euskara proba egiteko aurkitutako oztopoen aurrean, eta ikusirik ikasturtea aurrera doala eta proba behar baino gehiago atzeratuko zela, Mank-ek erabaki du euskara proba bertan behera uztea eta ikasturte honetan izena eman duten guztiak onartzea".

Azkenik, bai Mank-eko Euskara Zerbitzuak bai Topaguneak jardueraren jarraipena egingen dutela azaldu dute, "helburuak betetzen direla berma dadin, eta bestela behar diren neurriak hartuko dituzte".

## » Arakil

## Udala herriz herriko bilerak egiten hasi da

**Ostiralean, 19:00etan, Satrustegin izanen da. Otsailaren 4an Zuhatzun izanen da**

Arakilgo Udaleko ordezkariak ibarreko 12 herrietan dauden premiak bertatik bertara ezagutu nahi dituzte. Horregatik, herri bakoitzera joan eta kontzejuko ordezkariekin biltzen hasi dira. Herrian dauden premiak zerrendatu eta haiek zuzenean ikusteko aukera dute udal ordezkariak. Kontzejuetako ordezkariekin bildu ondoren, herritarrekin ere biltzen dira, udalaren martxa azaltzeko eta haien eskaerak entzuteko. Hilaren 14an Egizarretan izan ziren eta 20an, Etxarrehen.

**2x1**  
**TXIKITXO**  
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08  
Ferialleku 2 • ALTSASU

**maríaeugenia**  
Arrainak  
www.pescaderiamariaeugenia.com  
Arratsalde zabalik

**Lortu deskontuak gure txartelarekin!**

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722  
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

etxeko aseguruetan  
**%25**eko deskontuak  
eta, gainera, etxetresna elektrikoak konpontzeko zerbitzua DOAN

**MAPFRE ALTSASU**

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM jimazpr@mapfre.com  
San Juan 48 behekoa • ALTSASU • 948 563 354

## » Lakuntza / Olatzagutia

**Eguraldi hotza baina giro beroa San Sebastianetan**

Ostiralean hasi eta astelehenean, San Saastin egunean, despeditu ziren Lakuntzako San Saastinak. Rosario eta Lourdes Soto ahizpek irabazi zuten piperropil txapelketa. Larunbatean danborrada txikia izan zen, eta igande eguerdian, aldiz, nagusien danborrada. Parkea Martxan ekimenari eman zioten ohorezko txanoa. San Saastin egunean erromeria egin zen ermitara eta arratsaldean Alkate dantza dantzatu zitzaizen udal ordezkari. Olaztin San Sebastian ermitako meza ondoren txokolate beroa dastatu zuten. +www.guaixe.net

## » Bakaiku / Iturmendi / Urdiain

**San Anton kofradien ospakizunak**

Bakaikun 99 kofrade dira eta 62 bildu ziren larunbatean bazkaltzera. Mikel Luis izanen da maiordomo berria eta Ivan Biana beleroa. Urdiainen 48 sanantondar dira eta horietatik 35ek bazkaltzera zuten larunbatean. Maiordomo berriak Daniel Agirre eta Igor Zufiaurre izanen dira. Iturmendiko kofradiak 27 kide dauzka eta igandean bazkaltzera bildu ziren guztiak. Priorea Pedro Mari Goikoetxea izanen da; eta, abandonaduna, Alberto Goikoetxea. Dorraon, larunbatean, 27 kofrade elkartu ziren bazkaltzera.

## SAKANA

**Erabakitze eskubidearen aldeko giza katean izena eman daiteke dagoeneko**

**2014ko garagarriaren 8an eginen da, 12:00etatik 12:30era, Sakanan barna Gernika eta Iruñea lotuz**

Gure Esku Dago dinamikak erabakitze eskubidearen alde mobilizazioa eginen du heldu den urtean: Gernika eta Iruñea lotuko duen 123 km-ko giza katea. Dinamika horrek, erabakitze eskubidearen aldeko ariketaren inguruan lan egin nahi duten herritarrei aktibaziorako tresnak eta aukerak eskaini nahi dizkie. Horregatik, garagarriaren 8an Iruñea eta Durango arteko 123 kilometroak giza katearen bidez lotzera eta betetzera deitu ditu euskal herritarrek.

Hiru ideiarengatik auzolanaren proposatu du Gure Esku Dago dinamikak: "herri bat garelako, erabakitze eskubidea dagokigula eta herritarren garaia dela". Horien inguruan elkarlanerako

gonbidapena luzatu dute dinamikako kideek. Izan ere, "eskubide demokratikoa eta unibertsal den Erabakitze Eskubidearen inguruan, oraindik ere zabalagoa eta jendetsuagoa izan behar duen jendartearen erdigune sendo eta eraginkorra eraiki beharra dago". Guztia, "geure etorkizunaz erabaki ahal izatea nahi dugulako".

Plataformakoen ustez Erabakitze Eskubidea "askotariko sentibilitateen elkargunea" izan daiteke. Horregatik, herritarrengan utzi nahi dute eskubide horren aldeko lana "aktibatze" eginkizuna. "Ahalik eta askotariko, zeharkako eta zabalena" izatea nahi dute. Eskutik eskura ekimenaren bidez hurrengo asteetan herrietan erabakitze eskubidearen aldeko konplizitateak eta konpromisoak eskutik eskura etengabe pasatzea bilatuko dute.

**Sakanan**

Lizarrustitik sartuko da. Lizarragabengotik Aizkorberako bidea eginen du kateak. Parte hartzeko bi bide daude. Sakanako plataformako kideekin harremanetan jarri eta datuak eman beharko dizkie. Hartutako konpromisoaren adierazgarri den txartela jasoko du. Bestela, www.gureeskudago.net

atarian sartu eta han datuak eman. Eskualdearen arabera katean parte hartzeko proposamen batzuk jasoko ditu eta haien artean aukeratu ditu. Internet bidez Hemen behar zaitugu estekan klikatu eta betetzeko zaila den tokietara bideratuko dute. Parte-hartzaile guztiek giza katean parte hartzeko kit-a jasoko dute 5 euroren truke.

## »

**Udalbiltzak naziotasun neurriak adosteko alkateen bilkura deitu du**

**Etxarrin apirilaren 13an eginen den moduan beste udalerrietan independentziari buruzko galdeketa egitea aztertuko da**

Udalbiltzaren nazio bilera otsailaren 22an izanen da, Ordizian, estatuen inposaketari aurre egiteko eta euskal identitatearen aldeko neurriak adosteko. Ekimen praktikoaren bidez "euskal identitatea eta herritartasuna ozen adierazteko ekimen praktikoak" landuko dituzte.

Hautetsiek elkarlanean aztertuko dituzten dinamikak izanen dira: Espainiako bandera jartzeko aginduari erantzuna ematea; Euskal herritartasun agiria sus-

tatzea; Interneteko domeinu propioak garatzea eta Aberri Eguna baliatzea, nazioa garelako aldarrikatzeko ez ezik, Euskal Herria aintzat hartzen duten eragile eta herritarrek elkartzeko, eta pauso berriak jakinarazteko.

Udalbiltzako zuzendaritzak, bestalde, txalotu egin du etxarriar batzuen ekimenez herrian eginen den independentziari buruzko galdeketa: "ariketa demokratikoa da eta Euskal Herriaren burujabetzari buruz galdetuko dute. Katalunian ere egin zituzten herri galdeketa; arrakastatsua eta iparra markatu zutenak izan ziren".



## SAKANA

# Suhiltzaileak, beste zerbitzu publiko baten kalitatea arriskuan

**Altsasuko parkean dauden langile kopurua jaisteko proposamena egin du Nafarroako Gobernuak. Zerbitzuaren kalitatea jaitsi eta langileek arrisku egoera gehiago biziko litzukete**

Duela bost urte suhiltzaileek euren nagusiarekin hitzarmena itxi zuten eta zehaztu zuten Nafarroako 12 parkeetarako, zerbitzu egokia emateko, 388 suhiltzaile beharrezko zirela. Nafarroako Gobernutik orain diote nahikoa direla 317 suhiltzaile. Gainera, suhiltzaile horiek Nafarroako edozein parketan lan egitea nahi dute foru administratioko arduradunek. Hau da, erabateko mugikortasuna.

Suhiltzaileak ez daude gobernuaren asmoekin ados. Euren ordezkariak esan dutenez, "Nafarroako Gobernuak daraman murrizketa politikan oinarrikoak diren zerbitzuak kaltetu ditu: hezkuntza, osasuna... Orain larrialdien txanda da". Suhiltzaileek Nafarroako Gobernuari leporatu diote plantilla berritzeko sinatuta dagoen lan hitzarmena ez betetzea. Protesta moduan parkeetan eta ibilgailuetan "suhiltzaileak behar dira" leloa duten pankartak eta kartelak jarri dituzte.

## Langileak behar dira

Altsasuko parkeko langileek berretsi digute Nafarroan suhiltzaileak



Berez 21 suhiltzaile egon beharko lukete baina 24 daude. Lekualdaketan atera zirenean Altsasuko parkeko langileek haiek ez hartzea eta bertan gelditzea erabaki zuten. Langileen erabaki horri esker Altsasuko parkean urteko egun gehienetan lau suhiltzaile daude. Horrek zerbitzuak bikoizteko aukera ematen die. Hau da, bikote bat ambulantiarekin irten diren bitartean beste bikotea errepidean eroritako zerbitzu garbitzera joan daiteke. Hiru daudenetan, hirurak zerbitzu bakarrean ariko liriteke eta parkean ez litzateke suhiltzaileekin geldituko. Zerbait gertatuko balitz Iruñetik etorri beharko lukete. Zerbitzua ematen dioten eskualdearen berezitasunak ere aipatu dizkigute suhiltzaileek: "Ziorditik Goizueta bitarteko eremua hartzen dugu. Espazio asko da. Trafiko handia duten hiru autobia eta trenbidea daude. Industria dago..." Haien egoeraren berri emateko suhiltzaileek udaletan idatziak aurkeztu dituzte.

behar direla. "Duela bost urte akordioa sinatu zenetik kideak jubiltu egin dira, batzuk eszedentzian daude, gaixotasunagatik bajaran dauden besteak... Haien lanpostuak ez dira ordezkatu". 317 suhiltzaileekin zerbitzuaren kalitatea ez dela bermatuko argi eta garbi dute langileek, "herrietako parkeetan gutxieneko langile kopuruaren azpitik egonen ginateke askotan".

Langileek gogora ekarri dute azken bost urteetan 55 urtera iritsi diren kide asko daudela. "Adin

horrekin zerbitzu laguntzaileetara pasatzeko aukera daukagu, zeren 55 urterekin jende asko ez dago zerbitzu operatiboan aritzeko moduan". Altsasuko suhiltzaileek esan digutenez kide asko daude zerbitzu laguntzaileetara pasatzeko zain, "baina zuzendaritzak trabak jarri ditu aldaketa hori egiteko eta 60 urtera arte operatiboa segitzeko". Neurri hori zerbitzuaren kalterako dela esan digute: "gure lanaren ezaugarriengatik adin horrekin baldintza onetan

egotea oso zaila da". Horregatik, zerbitzuaren kalitatea mantentzeko, plazak ateratzeko oposizioak deitzea eskatu dute suhiltzaileek.

## Segurtasuna

Eskaintzen den zerbitzuaren kalitatean suhiltzaile kopuru bat edo beste izateak eragina duela nabarmendu nahi izan dute. Langile kopurua jaistek, zuzenean eragina du suhiltzaileen segurtasunean. "Ez da berdina lau suhiltzaile edo hiru egotea". Ikerketetan oinarri-

## Mugikortasuna

Gutxieneko kopurua da 317 suhiltzaileena. Bakarren bat gaixo jarri, eszedentzia hartu edo istripua izan balu ordezkari ez legoke eta parke asko gutxieneko suhiltzaile kopuruaren azpitik geldituko liriteke. Neurri horrekin batera suhiltzaileei erabateko mugikortasuna ezarri nahi diegobernuak. Hau da, parke batean lan postua izan arren Nafarroako beste edozein parketan lan egitea. Horrek parke bakoitzeko gutxieneko langile kopurua ez bermatzeko bidea ematen du baldin eta langileren bat gaixo edo bajaran badago.

tu dira: "sute batean erreskate bat egin beharko balitz, lau suhiltzaileez osatutako taldeak hirukoak baino %80 eraginkorragoa erreskatatuko luke pertsona etxetik". Beste ikerketa baten arabera sute bati aurre egiterakoan lau suhiltzaileko talde bat hirukoak baino denbora erdian egingen luke lana.

Binaka lan egiten dute suhiltzaileek, elkarri laguntzeko eta segurtasunagatik. Sute batean, esaterako, lau izanez gero, bi barrura sartzen dira eta beste bi kaletik lan egiten dute eta barruan zerbitzu gertatuz gero biak sartzen dira barrura. "Hiru bagaude, pertsona batek ezin du erreskate bat egoki egin. Guretako ere arriskua da. Sute horretan gutako inori ezer gertatuko balitz, aizingo liguke lagundu". Haien lan baldintzak asko okertuko liritekeela azaldu digute.

## Altsasu



Altsasuko Udala.

## Udalak hiru kontratu eman ditu

Altsasuko Udalak zerga-objektuak errebisatzeko programa aurrera eramateko laguntza administratiboa kontratatatu du. Langintza horretan Tracasa enpresa publikoa ariko da eta egin beharreko lanen truke 60.000 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu Iruñerriko enpresak.

Horretaz aparte, Altsasuko Udalak Jorge Cordon Villarri eman dio Iortia kultur gunearen funtzionamendurako laguntza kontratua. 2014 eta 2017 aldirako izanen da kontzesioa eta horren truke 34.200 euro jasoko ditu (BEZ kanpo). Bestalde, ikastetxeetan adierazpen dramatikoaren bidez hezkidetzeta programa Nafarroako Antzerki Eskolak egingen du. Horren truke erakundeak 7.920 euro jasoko ditu (BEZ kanpo).

## Altsasu

# Hasi dira Zumalakarregiko aterpeko lanak

Allozko Inserlantxo enpresako langileak dagoeneko Zumalakarregi plazan lanean ari dira. 2009ko maiatz hasieran jarri zituzten metalezko zutoinak aterpean Altsasuko Udalaren aginduz. Behin behineko prebentzio neurria izan zen zutoinak jartzearena, porlan puskak eror zitezkeelako. Langileek aterpea hobetzeaz aparte, haren forjatua eta zutabeak indartuko dituzte. Eta gainean dauden terrazen hezetaz arazoak konpontzeko neu-

rriak hartuko dituzte, besteak beste, baldosak jarri. Lanen truke 96.666 euro jasoko ditu enpresak.

Altsasuko Udalak egingen ditu lanak, baina aterpeak hartzen duen zazpi portaletako etxejabeek ordainduko dute lana, haiena baita arkupea. Horrela eginda, bizilagunek udal zergen ordainketa pagatzea aurreztuko dute. Lan horiek despeditzean, aterpean argiteria publikoa berritzeko lanak egingen ditu udalak. Horretarako 20.000 euro bideratuko ditu.



Langileak Zumalakarregi plazan lanean.

**LARRAZA ARDOAK**  
Tel.: 948 460 014



Zugarreta 2  
Etxarri-Aranatz

**kaxeta**  
liburudenda / paperdenda  
Zure bertako opari denda

Fax Zerbitzua  
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477

Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

**PPSOE, ETB digitala Nafarroan orain!**

Berria erosi taldea

Tel.: 948 562 829  
faxa: 948 563 002

**Unamuno**  
ALTSASU

**OILATEGIKO ANIMALIEN PENTSUA 10KG.KO POLTSETAN**





GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 564 355**  
**679 160 116**  
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com



## Jesus Mari Jaka Maiza



Beti gu tartien yonen za.

Zure 1969ko kintuek



## Joxe Miguel Zeberio Luis Carlos Mendinueta Jose Luis Sanzol

Goiz utzi gintuzuen  
baina betiko egongo zarete gurekin.

Zuen kintoak



Eskertzak eta eskelak osteguneko  
goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)-era  
edo hots egin  
948 564 275 telefonora

**Oroigarriak  
egiten  
ditugu**

Nahi duzun  
argazki  
eta testuarekin

**GUIAIXE**  
KOMUNIKAZIOA

948 564 275  
Foru plaza 23-1  
Altsasu  
[argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)

# guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIRIETZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**  
Guaixe astekarrian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,  
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

## HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

### Ikastaroak

**Moldatze eta hustutze ikastaroa.** irudiak egin eta molde bidez edozein materialetan hustutzeko behar den guztia ikasiko duzu. Eman izena 635-60 15 91 telefonoan, [www.harbizi.com](http://www.harbizi.com), [info@harbizi.com](mailto:info@harbizi.com), Loinazbide 3 Arbizu.

**IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean.** Informazio gehiago [www.ifes.es](http://www.ifes.es), 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

**Forem Navarra – CCOO ikastaroak.** Informazio gehiago: [www.foremnavarra.org](http://www.foremnavarra.org)

**AIN-consulting ikastaroak.** Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta [formacion.ain.es/](http://formacion.ain.es/)

### Lehiaketak

**ETBko lehiaketarako lehiakideak.** Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderari erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua [hizkamizka@eittb.com](mailto:hizkamizka@eittb.com) e-postara bidali beharko dute.

### Oharrak

**Nafarroako herri komunikabide bat sortze-ko.** Diru bilketa hasi dute. Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrantean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behargu?lang=eu> bidez egin.

**Tartalariendako laguntza.** Laguntza ekonomiko Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrantean sartu daiteke.

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzan: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

**CAF-ELHUYAR beka.** Zientziaren/teknologiaren eta gizartearen arteko elkarrekintza landuko duten proiektuei lagundu nahi die sariketarako. Proiektuen izaera zientifikoa, artistikoa zein soziologikoa izan daiteke, eta arlo zientifikoa eta soziala harremanetan jartzea izan behar du hain muinak. Ilbeltzaren 31ra arte. Saria 5.000€. Informazioa: [www.elhuyar.org](http://www.elhuyar.org).

**Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu.** Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza) [euskonews@euskonews.com](mailto:euskonews@euskonews.com), 943- 32 22 94.

**Etxeko lantxoak – trukea.** Informazio gehiago [larrezabaldk@inigoaritz.com](mailto:larrezabaldk@inigoaritz.com)

**3MBk kontu korrantea zabaldu du.** Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

**Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.** Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com](http://amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com) eta [amigososefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigososefinaarreguilagunak@gmail.com)

**Eskuratu zure beleixeguaixe txartela.** 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net).

**Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko.** Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68 9152623199.

**Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda.** Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarri edo horni-

tzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarrik eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arropa, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informazioarako: 656 711 130 (Gorka).

**Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina.** Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasozen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehasak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

**Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan.** Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzan, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu

### EZKONTZAK

• **Arkaitz Mozo Bakaikoa eta Loida Claver Pardo**, ilbeltzaren 22an Lakuntzan.

### HERIOTZAK

• **Leocadio Motino Vicho**, ilbeltzaren 15ean Olaztin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

648 07 07 10 edo [immigrazioa@sakanamank.com](mailto:immigrazioa@sakanamank.com) posta elektronikoa.

### Gazteendako sexualitate aholkularitza.

Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunea (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo [gazteria@altsasu.net](mailto:gazteria@altsasu.net) helbidea). Adina: 12-30 urte.

**Izan zaituz Mintzakide!** Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzan du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informazioarako: 607 624 392 telefonoa, [sakana\\_mintza@aek.org](mailto:sakana_mintza@aek.org) e-posta edo [sakanamintza.blogspot.com](http://sakanamintza.blogspot.com) ataria.

## MENDI LASTERKETAK

**MAIZA HAMASEIGARRENA GARINEN:** As-teburuan Garingo Mendi Lasterketa jokatu zen (9,6 km). Hassan Aitchadu izan zen az-

karrena (41:47). Jose Javier Maiza etxarriarra 16.a izan zen (47:23) eta Julen Paniagua urdiaindarra 34.a (49:38).

## kirola &gt;&gt;

## Kiroldegia

# Nafarroako Kirol Mankomunitateak diru-laguntzarik gabe

LANDA EREMUETAKO KIROL ZERBITZU PUBLIKOAK ARRISKUAN DAUDELA SALATU DUTE NAFARROAKO 6 KIROL MANKOMUNITATEEK, TARTEAN SAKANAKOAK

Nafarroako Kirol Mankomunitateak kinka larrian daude, ez baitute Nafarroako Gobernuak diru-laguntzarik jaso. Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak kirol aktibitateak bulkatzeko diru partida zehaztua du entitate sozialendako, baina ez du gauzatu.

## 6 Kirol Mankomunitate, tartean Sakanakoa

Nafarroako Kirol Mankomunitateak 90. hamarkadan jaio ziren, Nafarroako Gobernuak berak bulkatuta, toki erakundeak inplikatu. Helburua herritarrei kirol praktika egiteko aukera eta eskubidea eskaintzea da, bereziki toki erakunde ertain eta txikienei, kasu batzuetan euren oinarriko kirol antolaketa sendotu beharrean eta besteetan sortu beharrean baitziren toki erakunde hauek.

Egun 6 Kirol Mankomunitate daude Nafarroan: Araitz-Areso-Betelu-Larraun-Lekunberri, Nafarroa hegoaldea, Sakana, Erdialdea, Ultzama eta Ilzarbe ibarra. Bere garaian Nafarroako Gobernuak milioi bat euroko laguntza eman izan zuen entitate sozialek kirol aktibitateak bulkatzeko partidari. Diru laguntza hauetan aipatu mankomunitateek burututako kirol programa guztia laguntzeaz gain, 3. adinakoei bideratutako aktibitate fisikoa jasotzen da.

Bainadiru-laguntza kopuru hori izugarri jaitsi da. 2011an Nafarroako Gobernuak ez zuen diru-lagun-



Mankomunitateak antolatutako Sakanako Herri Lasterketaren aurkezpena. Tartean, Amaiia Gerrikagoitia teknikaria.

tza hori exekutatu eta 2012an partida aterazuten: 100.000 euro 2011ko gastuak estaltzen laguntzeko eta 150.000 euro 2012rako. Partida bi urtetan banatu zuten. 2013rako 180.000 euroko partida zegoen baina ez dute deialdirik atera.

Egoeraren aurrean, Nafarroako 6 Kirol Mankomunitateetako ordezkariak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko (NKGI) zuzendari Pruden Indurainekin bildu ziren. "Berak esan zigun euren lehentasunen zerrendan lehenengoak ginela eta partida askatzen zutenean lehenengoak izango ginela guri zegokiguna jasotzen. Baina ez du hitza bete, abenduan klubendako diru laguntza deialdia atera baitzuten eta

gurea ez" azaldu du Sakanako Mankomunitateko Amaiia Gerrikagoitia teknikariak.

## Parlamentura

Nafarroako 6 Kirol Mankomunitateek Nafarroako Parlamentuko ordezkari politiko guztiei egoeraren berri eman zieten. Bildu-Nafarroak, Aralar-NaBaik eta Geroa Baik baiezkoa eman zieten eta Parlamentuko lan saio batera gonbidatu zituzten. Nafarroako Kirol Mankomunitateetako 4 ordezkari izan ziren bertan, Sakanako Mankomunitateko Amaiia Gerrikagoitia teknikaria, Araitz-Areso-Betelu-Larraun-Lekunberriko Ruben Goñi teknikaria, Ilzarbe bailarako teknikari Esther Villar eta Ultza-

mako teknikari Asier Uriarte. "PPko Amaia Zarranzek esan zigun berari ez zitzaioala gure eskaria iritsi, baina berak ere bat egiten zuela" gaineratu du Gerrikagoitiak. "Lan saioan gure kexua aurkeztu genuen. Adierazi genien diru-laguntzarik ezean landa eremuetako eskualdeetan kirol zerbitzu publikoak arriskuan daudela. Gure mankomunitateek Nafarroako 85.000 biztanleri ematen diogu zerbitzua. Kirola egitea ezinbestekoa da osasunarendako, gaixotasunen prebentziorako. Horretaz gain, hainbat balore sustatzen ditu: errespetua, elkartasuna, laguntasuna, berdintasuna, integrazioa, talde bat osatzaren garrantzia... Guk kirola sustatzen dugu: hainbat kirol

## Astlehenean bilduko da Parlamentuko lan mahaia

Astlehenean Parlamentuko lan mahaia elkartuko da, goizeko 10:00etan, eta atzera ere gaia aztertuko dute.

## Sakanan

Amaiia Gerrikagoitia teknikariak azaldu digunez, aurten Kirol Zerbitzuan zehaztutako plangintza bete da. "Nafarroako Gobernuak partidaren sarrera ez dugu jaso, eta kontuak ixten direnean ikusi beharko dugu falta den diru hori nondik jaso, diruzaintza nola konpondu". Diru-laguntzak jasoko diren edo ez ez jakiteak "dena baldintzatzen du. 2014ko aurrekontuak prestatzen gaude eta Nafarroako Gobernuaren diru partida ez dugu jaso. Aurrekontua estutzen saiatu gara" gaineratu du.

ekitaldi antolatzen ditugu, ikastaroak, herrietako kirol klubei laguntza ematen diegu, bertako herri kirolak sustatzen ditugu, eta 3 diru iturri nagusi ditugu: Udalak, erabiltzaileek ordaindutako kuota eta Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza" azaldu digu teknikariak.

Okerrena da diru partida zehaztuta zegoela, eta Mankomunitateek euren eskaintza egin dute. Baina oraindik ez da partida exekutatuta. Mankomunitateek NKGI-ri eskatzen diote deialdia atera dezala, 2013ko partida exekutatu dezala eta 2014rako diru partida jaso dezatela. Jakin izan dutenez, 2014an ez da partidarik sartu.

## Pruden Indurainen azalpenek ez zuten oposizioa asetu

Bildu-Nafarroak, Aralar NaBaik eta Geroa Baik eskatuta, ilbeltzaren 15ean NKGI-ko zuzendari Pruden Indurain Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politika batzordean izan zen. "Gure departamentuak ikertetasakona egin du eta lehentasunak ezarri ditu, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren funtzionamendurako inportanteenak diren zerbitzuak zehaztuz: Nafarroako Kirol Jolasak, eskola-kanpainak, federazioei eta klubei laguntzak, kirol probak, Migel Indurain fundazioa, kirol instalakuntzetan egin beharreko lanak... Nahiz eta Kirol Mankomunitateei emandako laguntza guretao garrantzitsua izan, ez da aurreko guztiak bezain garrantzitsua. Saiatu gara aipatu partidarako baliabideak jartzten, baina diru sarreren kapitularen eboluzioa ez da esperotako aizan, ezin izan dugu partida bere osota-



sunean erabili. Horrela, 3. adinako aktibitate fisikoaren sustapenari erantzun diogu; horretarako 30.649 euro zehaztu ditugu. Nafarroako 30 toki erakunde lagundu ditugu, 45 talderi eta 800 parte hartzailei. 2014an kirolean eta gazterian lanean jarraituko dugu, baina lehentasunak jartzten jarraituko dugu. Gutxienik 2013an bezala lanean jarraituko

dugu" azaldu zuen Indurainek. **Parlamentariaren kritikak** Bilduko Aitziber Sarasolak gogor kritikatu zuen Indurain. "Horrek zeresan nahi du, 2013an Mankomunitateek ez dutela diru-laguntzarik jasoko? Eta 2014an ahalegin berbera egin behar bada ez da dirurik izanen? Mankomunitateek ez dute informaziorik jaso, gutxienik erantzun bat

behar dute. Gobernuak Mankomunitateak kinka larrian jartzen ditu, euren lanpostuak berak kolokan. Eurek landa-eremuan antolatzen duten guztia, kirol ikuskizunak, herri kirolen lanketa, pilota eskolak, kirol klubek laguntza... nork hartu behar du bere gain, Kirol Institutuak?" salatu zuen Sarasolak. Aralar-NaBaiko Asun Fernandez de Garaialde eta Lazkano iritzi berekoa zen. "Udalek ezin dute gehiago eman, itota daude. Kirol Mankomunitateek diru horrekin kontaktatzen zuten eta ekitaldiak antolatu zituzte. Orain nola finantzatu dute hori?" adierazi zion altsasuarra Induraini. Geroa Baiko Patxi Leuzak ere kritikak sendoak plazaratu zituen. "Lehentasunak badaude, adierazi argi eta garbi zeintzuk diren. Azpimarratzekoa da kirol teknikari horiek, udalek eta herritarrek egindako esfortzua" gaineratu zuen.

Alderdi Sozialistako Maria Victoria Arraizak salatu zuen Institutuak aurrekontuan murrizketa handia jaso duela eta horregatik ezarri behar izan dituela lehentasunak. PPko Amaia Zarranzek esan zuenez "ez da posible diru partida bat egotea, eurek euren egutegia antolatzea eta urte bukaeran oraindik ez jakitea dirurik jasoko duten ala ez". Eta Ezkerrak gogor salatu zuen lehentasunen kontuan partida batzuk murrizketarik ez eta beste batzuk %100eko murrizketak jasotzea. Pruden Indurainek berretsi zuen gogor ari direla lanean. Onartu zuen kirol mankomunitateetako teknikariak lan handia egiten dutela baina institutuan "lehentasunak jartzea" tokatu zaiela eta hala egin dutela. "Aurrekontua dagoena da eta kontzientzia lasai daukat, %200ean lanean gaudelako" gaineratu zuen.

Areto futbola

# 3 puntu garrantzitsu ihes egiten utzi zituen Magnak

6-5 GALDU ZUEN GRAN CANARIA TALDEAREN KONTRA

Magna Nafarroa Xotak garaipena lortzeko aukera alferrik galdu zuen ostiralean, Gran Canaria taldearen kontra 6-5 galdu eta gero. Kanariako taldeak denboraldiko lehen garaipena lortu zuen horrela. Imanol Arregiren mutilek hiru goleko errenta izan zuten bigarren zatian, baina bosgarren falta egin eta jokalaria bat gutxiagorekin geratzea oso garesti ordaindu zuten.

Lehen zatian bikain aritu zen Magna. Marc Arenyk Gran Canaria aurreratu zuen, baina Esevenrik hat trick ikusgarriarekin erantzun zuen Rafa Usinen gola-ekin batera 1-4 aurreratu ziren irurtzundarrak. Bigarren zatian modu kontserbadoreagoan aritu ziren Magnakoak, baloiaren jabetza kanariarren esku utziz. 2-4 gerturatu zen Gran Canaria eta Magnak 5. falta egin zuen, ondorio larriak izan zituena, minutu batean 3 gol sartu baitituen sailkape-

nean azkena den Gran Canariak, 5-4 aurreratuz. Magnak atezain gabe jokatu zuen eta, nahiz eta Jesulitok bosna berdindu, partida bukatzeko 2 segundoren faltan garaipenaren gola sartu zuen Gran Canariak. Mina ematen duen porrota izan zen.

## Imanol Arregi: "Guk bota dugu partida"

Partida bukaeran Imanol Arregik argi zuen eurak zirela gertatutakoaren errudunak, eurak alperrik galdu zutelako partida. "Pena izan da baina gure erruagatik galdu dugu, gure buru txarragatik, guk bota dugu partida zaborretara" azaldu zuen.

Inter Movistar da ohorezko mailako liderra (49 puntu). Magna Xota 5.a da (28 puntu). Ohorezko mailak atsedena izango du otsailaren 15era arte, orain Eurokopa jokatu-ko baita. Magnaren hurrengo arerioa Azkar Lugo izango da.



Roberto Martil eta Rafa Usin, lehian. XOTA

## Espainiako Kopan Inter arerio

Logroñok hartuko du Espainiako Areto Futbol Kopa, martxoaren 13tik 16ra Sailkapenean lehen 8 postuetan dauden taldeak lehiatuko dira. Atzo egin zen zozketa, eta final laurdenetan Inter Movistar taldearen kontra aritza tokatu zaio Magna Nafarroari, Marfil Santa Colomaren kontra ariko da El Pozo Murcia, Barcelona izango du aurkari Rios Renovables eta Santiago Putsal Montesinos Jumillak. Gero finalerdia jokatuko dira, eta, azkenik, finala. Irurtzundar taldeak 9. aldiz parte har-

tuko du Espainiako Kopan. "Arerio gogor baten kontra aritza tokatu zaigu. Inter da faboritua, akaso egun ligako talderik sasoi suena, horregatik da liderra. Baina gu ilusio guztiarekin ariko gara, eta nork daki! Torneo bereziada, partida batera jokatzeko dena, eta edozer gerta daiteke. Edizio guztietan sorpresa bat gertatzen da; ea guk ematen dugun" adierazi du Imanol Arregi entrenatzaileak. Energy kateak partida guztiak eskainiko ditu.

## FUTSAL SAKANA TXAPELKETA

# Sailkapena estu



Taldeen maila hobetzen ari denez, txapelketa lehiatua iragarri dute.

### 9. jardunaldiko emaitzak:

Auzomotojorik 4 - Bunker 2  
Arbizu K.T 12 - Bil Toki 1  
Racing San Migel 7 - Etxarriko gaztetxiek 7  
Atsedena: Iturmendi

Futsal Sakana 2013-2014 areto futbol txapelketako 9. jardunaldia jokatu zen larunbatean Uharteko Arakilen. Jardunaldi ikusgarria izan zen. Racing San Migel lide-

www.futsalsakana.es

Txapelketako informazio guztia, kronikak barne. Facebook eta twitter sare sozialetan ere.

rrak lehen aldiz berdindu zuen denboraldi honetan, Etxarriko gaztetxiek taldearen kontra, zazpina golekin San Migeleko Jesus Angelek hat tricka sartu zuen, hiru gol, eta Etxarriko gaztetxeko Jurgik gol bat gehiago, lau guztira. Bestalde, Auzomotojorik taldeak hiru puntu lortu zituen Bunker lehiakorra 4-2 menpean hartu eta gero. Eta hirugarren partidan, Arbizu eta Bil Tokiren artekoan, atsedena dira 2-1ekoarekin joan ziren arbizuarrak. Bil Toki jokalaria gutxiarekin azaldu zen partidara eta bigarren zatian hori asko nabaritu zen, Arbizu 12-1 gailendu baitzen. Joseba Razkinek 6 gol sartu zituen. Liga asko geratzen da oraindik eta sorpresak egongo dira, taldeen maila egunez egun igozten ari baita.

## Asteburuko jardunaldia

>> Ilbeltzaren 25ean, larunbatean, Uharteko Arakilen  
15:00etan: Iturmendi - Racing San Migel  
16:00etan: Bunker - Etxarriko gaztetxiek  
17:00etan: Bil Toki - Auzomotojorik  
Atsedena: Arbizu

## Sailkapena

Sailkapenean Racing San Migel da lider (19 puntu), Auzomotojorik 2.a (18 puntu) eta Arbizu hirugarrena (15 puntu). Atzetik daude Bil Toki (9 puntu), Iturmendi eta Bunker (seina puntu) eta Etxarriko Gaztetxiek (4 puntu).

Racing San Migel taldeko Asier Turumbay (15 gol) da, egun, pitxitxia, Arbizuko Joseba Razkin (14 gol) eta Etxarriko Gaztetxeko Jurgi Kintanaren aurretik (14 gol). Bestalde, gol gutxien jaso duen atezaina Arbizu K.T. taldeko Iñaki Galarza da.

## Futbola

### FEDERATUTAKO TXAPELKETA

#### 3. MAILA

##### 21. JARDUNALDIA

**LAGUN ARTEA 2 - UHARTE ITAROA 3**  
Uharteko Iruñekoak ideiak argiagoak zituztela kanjaratu ziren. Lagunen akats baten ondorioz aurreratu zen Uharteko Iruñea, eta atsedena dirako 0-3 aurreratu ziren. Lagunek egindako aldatetek fruitua eman zuten eta Unai Bakaikoak eta Endikak gola sartu zuten. Nahiz eta berdintzeko zorian egon, 2-3 galdu zuten lakuntzarrek.

Sailkapena >>

1. San Juan	47 p
15. Lagun Artea	23 p

Asteburuko jardunaldia

### VALTIERRANO - LAGUN ARTEA

(Larunbatean, 16:30ean, Valtierra)

#### ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

##### 16. JARDUNALDIA

**UNIV. DE NAVARRA 1 - ALTSASU 1**  
**ALTSASU 1 - LAGUN ARTEA B 1**  
**ETXARRI ARANATZ 4 - ERROTXAPEA 3**  
Altsasuk atzeratutako partida jokatu zuen Nafarroako Unibertsitatearen kontra. Nahiz eta lehen taldean Altsasuk dominatu, ez zuen golik sartu. Gainera penalty bat huts egin zuten. OPUsekoek gola sartzea lortu zuten baina Altsasuk berdindu zuen. Eta, igandean, Lagun Artea B izan zuten arerio. Pare pare aritu ziren bi taldeak. Altsasu aurreratu zen, baina partida bukaeran Lagun Artea B-k berdintzea lortu zuen. Bestalde, Etxarriko bolada onean jarraitzen du eta Errotxapeari 4-3 gailendu zitzaion. Gutxinaka azkeneko postuak atzean uzten ari dira etxarriarrak.

Sailkapena >>

1. Lekunberriko Beti Kozkor	36 p
4. Lagun Artea B	27 p
6. Altsasu	25 p
13. Etxarri Aranatz	16 p

Asteburuko jardunaldia

### LAGUN ARTEA B - ARDOI

(Igandean, 12:30ean, Berriozarren)

### BETI ONAK B - ALTSASU

(Igandean, 12:30ean, Atarrabian)

### BERRIOZAR - ETXARRI ARANATZ

(Larunbatean, 16:00etan, Berriozarren)

## Futbola



## Sakanako Futbol 8 Txapelketa

### Oporraldiaren ondoren lanera

Gabonetako oporraldiaren ondoren, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako kimuen mailako Sakanako Futbol 8 Topaketak itzuliko dira igandean. Lehen itzuliko azken partida jokatu da, Altsasuko Dantzalekun.

## 9. jardunaldia

igandean, Altsasuko Dantzalekun

11:30ean: Kaixo - Dantzaleku

11:30ean: Arbizu K.T. - Tipi Tapa

12:30ean: Etxarri Aranatz - Lagun Artea

12:30ean: Txartel - Urdiain

Atsedena: Sayas

**IGOA**  
arraindegia

948 460 111 · Arkuetabide kalea · Etxorri Aranatz

**OLAZTI**  
HORTZ KLINIKA

A. GURMINDO STEIN KALEA 6  
948 56 25 36 · OLAZTI

**NEREA**  
ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA.  
Ermiñeta Kalea 4. ZBK. (Atzekaldea)  
LAKUNTZA. TFN:948 576 331

## Txirrindularitza



## Imanol Erbitik Australian hasi du denboraldia

Asteartean hasi zen Australiako Down Underreko Tourra. Imanol Erbiti hiriberriarra da proban lehiatzen ari den euskaldun bakarra.

## Aizkora

## Zilarrezkoan Erdozia II.a-Beltza lanera

Larunbatean Zilarrezko Aizkolarien Binakako txapelketako jardunaldia jokatu koda Zerainen, 19:00etan, bertako frontoian. Hiru biko lehiatuko dira, eta irabazleak egiten du aurrera txapelketan: Aratz Mugertza III.a-Mikel Larrañaga, Xabier Zaldúa-Xabier Dorronsoro eta Juan Jose Erdozia II.a eta Goizeder Beltza etxarriarrak.

## Saskibaloia



## Sakanako I. Saskibaloitopaketak

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako I. Saskibaloitopaketak antolatu ditu. Aipatu topaketetan premiari mailako taldeak lehiatzen dira, 8 urtetik 10 urtera bitarteko neska-mutikoak. Igan-dean 6. jardunaldia hartuko du Etxarri Aranazko San Donato eskolak.

## 6. jardunaldia

**Igan-dean, Etxarri Aranazko San Donaton**

**11:00etan:** Martinsasti - Putterri  
**12:00etan:** Beriain - Balankaleku

## Trinketea

## Murgiondok eta Aristorenak galdu

Nafarroako Trinkete Txapelketan, eskuzko binakakoan, Oberenako Koldo Murgiondo etxarriarrari eta Etxeberriari 40-37 irabazi zieten Zugarraldeko Orozek eta Iriartek. Trinketean, emakumezkoen paleta goma txapelketan Oberenako Etxarri eta Kontinek 30-25 irabazi zieten Aristorenari eta Zamorari.

## Pilota

# Zorterik gabe

AZKENEKO JARDUNALDIAN GALDU EGIN ZUTEN EZKURDIA-ZABALETAK ETA XALA-ZUBIETAK. OSTIRALEAN ELKARREN KONTRA ARIKO DIRA, PUNTUEN PREMIAN

## Saillkapena

Olaizola II.a-Aretxabaletak	5 puntu
Irujo-Barriolak	4 puntu
Xala-Zubietak	3 puntu
Berasaluze-Albisuk	2 puntu
Bengoetxea-Galarzak	2 puntu
Titin-Merino	2 puntu
Urrutikoetxea-Beroizek	2 puntu
Ezkurdia-Zabaletak	0 puntu

Oinatz Bengoetxeak eta Ladis Galarza ordezkatzzen zuten Ibai Zabalak euren bigarren garaipena lortu zuten Joseba Ezkurdiari eta Jose Javier Zabaletari 22-13 irabazi eta gero. Sakandarrek jokoa- ren erritmoa bizkortu zuten, izugarri jo zuten eta Zabala atzelaria estutu zuten, baina, atzera ere, errematean egin zuten huts. Partida lehiatua izan zen, joko askokoa. Oinatz Bengoetxea oso fin ibili zen, eta bere erremate ikusgarriekin Ezkurdia bera erotu zuten. Eta nahiz eta atzeko koadroetan Zabaletak sekulako pilotakadak jo, Ibai Zabalak agoantatzen jakin zuten. Hasieratik aurreratu ziren Asegarcekoak, eta nahiz eta bukaeran sakandarrak markagailuan gerturatu, ez zen nahikoa izan eta 22-13 galdu zuten partida.

Bestalde, Labriten jokatuak lehian Xala eta Zubietari 12-22 irabazi zieten Irujok eta Barriolak. Zubietak izugarri sufritu zuten, partidaren azken txanpan bereziki. Tanta luzatu eta Irujok tanta indartsu bukatu. Hori izan zen euren estrategia eta ongi atera zitzaizen. Xalari kosta egin zitzaion

## Zenbat jokatzeko gai diren erakustera



Ostiralean Hendaian jokatu den partidarako, asteazkenean material aukeraketa egin zuten Hendaia pilotalekuan. Xalax eta Zubietak 105,4, 104,5 eta 106,2 gramoko pilotak aukeratu zituzten eta Ezkurdiak eta Zabaletak 106,8, 106 eta 105,5 gramokoak. Ezkurdiak adierazi zuen "oso biko sendoa" izanen dutela aurrez-aurre. "Hiru garaipen dituzte eta guztia lortzeko asmoa" gaineratu zuten aurrelari arbizuarrak. Orain arteko 5 jardunaldietan Ezkurdiak eta Zabaletak ez dute garaipenik lortu, eta ostiraleko partida beste modu batean planteatuko dutela azaldu zuten Ezkurdiak. "Txapelketa ahaztu eta zenbat jokatzeko gai garen demostratzera aterako gara".

jokoan sartzea eta Iberokoa oso fin zebilen aurrean. Partidako onena izan zen. Hala ere, Xala eta Zubietak aurkari serioak dira eta partidaren sartzea lortu zuten, 9-14 hurbilduz. Baina, bukaeran, 12-22 gailendu ziren Irujo eta Barriola.

## Sakandarren derbya

Ezkurdiak eta Zabaletak orain arte jokatuak 5 jardunaldietan ez dute irabazi eta txapelketa oso aldapa

gora jarri zaie. Eurak ere partida baino lehen argizuten irabazi behar zutelak, txapelketan aurrera egiteko aukerak izateko, bederen. Baina ez da horrela izan eta guzak izugarri zaildu zaizkie. Ostiralean Xala eta Zubietaren kontra aritu behar dute, sakandarren arteko lehia zorrotzean. Ezkurdiak eta Zabaletak derrigor dute irabaztea, markagailua mustutzeko sikiera. Eta Xala eta Zubietak ere puntuatu beha-

## Imazek Zangozako lau t'erdiko txapela jantzi du



Igan-dean Zangozako lau t'erdiko txapelketako finalak jokatu ziren Zangozan. Kimuetan, 3. eta 4. postuak zehazteko partidaren Arbuzuko Aldabideko Gorrotxategik Cantolaguako Reboléri 18-14 irabazi zion. Final handian, Aldabideko Imazek 18-12 hartu zuten menpean Aurrerako Goikoetxea. Zorionak Imazi.

rrean daude. 3 puntu dituzte baina atzetik dituzten bikoek, Ezkurdia eta Zabaleta salbu, bina puntu dituzte. Beraz, saillkapenean guzak estu daude eta puntuak urrea balioa dute. Ea noren alde egiten duten.

## 6. jardunaldia

**Xala-Zubietak / Ezkurdia-Zabaletak (ostiralean, 20:30ean, Hendaian. ETB1)**  
**Titin-Merino / Berasaluze-Albisu (larunbatean, 17:15ean, Logroñon. NITRO)**  
**Olaizola II.a-Aretxabaletak / Irujo-Barriola (igan-dean, 17:00etan, Bilbon. ETB1)**  
**Bengoetxea VI.a-Galarza / Urrutikoetxea-Beroiz (astelehenean, 16:30ean, Tolosan)**



# Etorkizuna badago

SAKANAKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK JOKATU ZIREN LARUNBATEAN ARBIZUN ETA LAKUNTZAN



Sakanako Pilota Txapelketako finalista guztiak, sari ematearen ondoren. UTZITAKOIA

Sakanako pilota klubetan aritzen diren 60 bikotek hartu dute parte Sakanako Pilota Txapelketan. Ondoko klubetako pilotariak lehiatu dira: Irurtzun, Altsasuko Pilotajauku, Etxarri Aranazko Gure Pilota Elkarte, Arbuzuko Aldabide, Olaztiko Sutegi eta aurten sortu berri den Lakuntza. Partidak aipatu herrietan jokatu dira.

## 11 final eder

Larunbatean final handiak jokatu ziren Arbuzun eta Lakuntzan, 11 final guztira, kategoriatu guztiak kontuan hartuta. Giro ona izan zen eta pilotariak ikuskizun polita eskaini zuten. Oso lehiatua izan zen nagusien finala eta azkenean txapela Irurtzunera eraman zuten Ijurrak eta Arrutik, Aldabideko

Murgiondori eta Agirreri 22-15 irabazi eta gero. San Saastinetan murgilduta zegoen Lakuntza, festa giroan, eta giro bero hori ere beteta zegoen Behar Zana frontoian nabaritu zen.

Sariak Oscar Lasak eta Joseba Ezkurdiak banatu zituzten. Pilotak iragana, oraina eta etorkizuna du Sakanan.

## Sakanako Pilota Txapelketako finalak:

**Txikiak:** Escudero-Cocera (Lakuntza) **18** / Jaka-Oiarbide (Gure Pilota) **2**  
**Umeak 2:** Baztarrrika-Arretxe (Aldabide) **18** / Araña-Albarrazin (Gure Pilota) **14**  
**Umeak 1:** Erdozia-Altzelai (Gure Pilota) **18** / Gaintza-Gorostieta (Irurtzun) **6**  
**Kimuak 2:** Olaetxea-Imaz (Aldabide) **18** / Jimenez-Gorrotxategi (Aldabide) **5**  
**Kimuak 1:** Imaz-Mariñelarena (Aldabide) **18** / Laso-Azpiroz (Irurtzun) **8**  
**Haurrak 2:** Reparaz-Ganboa (Aldabide) **18** / Astiz-Araña (Gure Pilota) **12**  
**Haurrak 1:** Olaetxea-Petriari (Aldabide) **18** / Otxoa-Igoa (Gure Pilota) **9**  
**Kadeteak 2:** Calvo-Arbizu (Sutegi) **18** / Bengoetxea-Galarza (Pilotajauku) **14**  
**Kadeteak 1 (lau t'erdian):** Ramirez de Alda (Pilotajauku) **18** / Goikoetxea (Aldabide) **2**  
**Gazteak:** Zudaire-Ustarroz (Irurtzun) **22** / Galarza-Grados (Pilotajauku) **6**  
**Nagusiak:** Ijorra-Arruti (Irurtzun) **22** / Murgiondo-Agirre (Aldabide) **15**

## Sakandarrak Espainiako Kluben Artekoan

Asteburuan Espainiako Kluben Arteko txapelketako 3. jardunaldia jokatu zen. Ohorezko mailako A multzoan, eskuzko modalitatean, Altsasu Titin III.aren kontra aritu zen. Banakakoan Altsasuko Aiestaranek 10-2 eta 10-2 galdu zuten eta binakakoan Arrieta eta Peñas altsasuarrek, Titin III. taldeko bikoteari 10-3 eta 10-6 irabazi zieten. Irurtzunek atsedean jardunaldia zuen.

# kultura >>

## Non erabili

### IÑAKI OINETAKOAK

**ETXARRI ARANATZ**  
50 €ko erosketetan % 5eko deskontua.

### GERTU SAKANA

**ALTSASU**  
Sukalderako tresnerian 50€ko erosketa egitean %10eko deskontu balea hurrengo erosketarako.

### AINHOA ESTETIKA

**IRURTZUN**  
2 produktu erosita, % 10eko deskontua.

### ASENSIO

**ALTSASU**  
100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea. (eskaintza ez metagarria).

### IL PADRINO

**ALTSASU**  
Eguneko menuan txupitua doan.

### EROSKI CITY

**ALTSASU**  
Eskaintza kanpainaren arabera.

### SARABE TXOKOA

**ALTSASU**  
30 €tik gorako erosketetan etxeko produktua doan.

### VALCARCE

**OLAZTI**  
0'06 €ko deskontua litroko, erregai guzietan.

### EDERNE ILEAPAINDEGIA

**LAKUNTZA**  
15 €ko gastuarekin, bibotea depilatzea doan. 30€ko gastuarekin bibote eta bekainak doan. Eta ileapaindegian makilaje ukitua doan.

### XAGU

**ALTSASU**  
% 5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketa eginez gero.

www.guaixe.net-en  
zerrenda osoa ikusgai

# Orainetik begira egindako erakusketa

**Helena Santano Cidek gaur, 19:30ean, mustuko du erakusketa Altsasuko Iortia kultur gunean; otsailaren 16ra arte izanen da ikusgai, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:00etik 20:00etara**

**K**olekzio pribatueta dau delako edo aukerarik izan ez duelako, orain arte sekula erakutsi ez dituen eta bere ibilbidea laburbiltzen duen erakusketa eskaintzen du Helena Santanok. Unibertsitate garaiko hasierako lanetatik hasi eta gaur egunera arte, beresortze prozesua islatzen duen bilduma opatuko du bisitariak Iortian, gaurtik aurrera.

1989an edo 90ean egindako eskulturen ondoan, Marokoko egoaldi batean egindako akuarela azkarak, Britainian egindako marrazkiak, hainbat garaitako eta

materialekin egindako eskulturak, feminismoari buruzko instalazioa (1993-1994koa), sexua oinarri duten margo espressionistak, egiteko duen eskulturen bozetoak, figuratibotik orban monokromatiko eta kromatikoetara, ikatz-ziriz egindako margoak, koloresarea eta sakontasuna sortzen duten kolorezko erroak... Bideo batean orain arte Altsasun, Lekunberrin eta bestetan erakutsitako koadroak ikusteko aukera izanen da.

*Orainetik iragana eta geroa eraikitzen* izenburua eman dio bere erakusketari Santanok. "Gaur egunetik iraganera eta etorkizunera egindako begirada da". Azaldu duenez, "orain bizi dugun krisi eta aldaketa garai honetan, izutu gabe, presentetik bizitzea" da bilatzen duena. "Horrela, perspektiba galdu gabe, unean zentratuta egotea".

## Action paintinga

Gaur erakusketa mustutzeko Helena Santano zuzenean margotzen ariko da, 20:00etik 21:30era. 2007an Lekunberrin Cristian Varelaekin arituz gerotik, Helenak musikaren erritmora zuzenean margotu izan du hainbatetan.

Action painting izena hartu dute saio horiek. Gaurkoahamabigarrena izanen da. Koadroa margotzeko erritmoa DJ Jurgi Oraak jarriko dio. Disko jartzaile altsasuarra aukeratu du Santanok proiektzioa duela iruditzen zaiolako eta sortzen duen musikateknoesperimentala, artistikoa" delako.



# Umerez errepasatutako futbol bizipenak

**Gaur, ilbeltzaren 24an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko kultur etxean**

**A**ntzokiak eta telebistako platoak zapaldu aurretik, Zuhaitz Gurrutxagak futbol zelaia zapaltzen zituen. Besteak beste Errealeko, Rayo Vallecanoko eta Real Unionejo jokalari izan zen. Bere futbol ibilbidean bizi izandako benetako anekdotak bilduz ondu du Gurrutxagak *Confidencias de un futbolista* bakarriketa. Haren aho-tsean normalean futbol jokalaribaten ahotan entzuten ez direnak entzuteko aukera izanen da gaur Olatzagutian.

Bakarriketena Vanpopel taldearen emanaldietatik eratorritako jarduna da Gurrutxagaren dako. Bere musika taldearen emanaldietan kantuak umore ikutuz aurkezten zituen eta jendearen gustuko zenez, handik sortu zen gaurko ikuskizuna ekarriko zuen ideia.

## bazterretik

Laida Aldaz Arrieta

### XS

Urtero Teatre Nationalak XS jaialdia aurkezten du Bruselan. Izenak adierazten duen bezala (eXtra Small), jaialdi honek bost minututatik hogeita bost minututara irauten duten formatu txikiko dantza, antzerki, txotxongilo, eta zirko emanaldiak eskaintzen ditu. Hiru egunetan, artista ezagun nahiz berrien lanak ikusteko aukera dugu. Gauero 18 obra antzezten dira eta honela, gau berean artista pila eta unibertso desberdinek sortzen duten giroa gozatzeko

aukera ematen digu erakustaldi honek.

Obra hauek ez dira beste lan batzuen laburpen edo zatiak, lan motzak baizik. Ez da erraza kontatu nahi dena hain denbora gutxian azaltzea, baina askotan mamira joatea da hoberena.

Duela gutxi arte obra luzeak inposatu ziren antzokietan. Bazirudien ordu bat baino gutxiagoko lanek ez zutela hainbesteko balioa, hauen iraupena bertan kontatzen zena baino garrantzitsuagoa izango balitz bezala. Baina gaur egun, obra motzei balioa ematen hasi

zaie. Gainera, merkatuen arteko lehiaketan erraz parte hartu dezaketen formatua lortzen du XS-ek, non prezio beragatik 18 lan ikus ditzakegun bakarrik ikusi beharrean. Oso atsegingarria da areto batetik bestera joatea, irudi eta ideia desberdinak barneratuz. Denboralaburrian egoera dramatiko batetik komedia egoera batera pasa gaitzke, edota istorio bat kontatzen duen lan batetik forma abstraktuak erabiltzen dituen beste batera. Honela, aro garaikideak eskaintzen duen aniztasuna ere lortuz. Argitaragabeko lanak erakusten

dira, antzoki zehatz honetarako sortutakoak, beraz, lehenengo aldiz jokatzen direnak. Areto batetik bestera mugitzen diren ikuslearen artean iritzi trukea sortzen da eta honen ondorioz ikusiko duten hurrengo obra erabaki egiten dute. Batzuetan emanaldiak areto handietan eta jende kopuru askorentzat sortzen dira, besteetan biper-sonarentzat bakarrik, ingurune kutunago bat sortuz. Jaialdi honetan parte hartzen duten 80 artistek, ikusle heldu, nahiz gazte edo txiki entzat primeran pasatzeko giroa sortzen dute.

## Antzerki tailerra Arakilen



Arakilgo Udalak antzerkigintzan sartzeko tailerra eskaini du. Jolasaren bidez antzerkiko hainbat teknika eta kontzeptu landuko dira: inprobisazioa, gorputz adierazpena, ahozko adierazpena, erritmoa, taldeko lana, fokua, eta abar. Aldi berean, antzerki eszenak landuko dira eta, tailerraren akaberan, publikoaren aurrean aurkezteko aukera izanen da. Jon Barbarin aktore, dantzari eta zuzendari ihabardarra izanen da irakaslea. Otsailean hasi eta maiatz akabera bitartean asteazkenero, 20:00etatik 22:00etara. Tokia taldeak zehaztuko du. Antzerki tailerrean parte hartuz, ongi pasatzeko gonbitea egin du Arakilgo Udalak.

### Sendabelarrak

Antzerkiaren gain, sendabelarren erabileraren inguruko beste ikastaro bat eskaini du Arakilgo Udalak. Sendabelarrekin, pomadak, xarabak, ukenduak, artisau-xaboiak eta kosmetikako produktuak (desodoranteak, makillajeak, kremak...) egiteko aukera izango da. Patricia Bañuelos kimika organiko doktorea, sendabelarrekin terapeutikan aditua dena, izanen da irakaslea.

### Izen ematea

Hilaren 28ra arte, Arakilgo udal-txean (948 500 001 eta 948 500 039). Gutxienez 10 pertsona behar dira tailerrak hasteko. Antzerkikoan gehienez 20 onartuko dira. Antzerki tailerrean, Arakilen erroldatuek 85 euro ordaindu beharko dute, gainontzekoek 97. Sendabelarren tailerrean, berriz, 80 eta 92 euro dira ordaindu beharrekoak matrikula egiteagatik.

## Arte garaikide ibiltaria

Zangoza, Noain eta Altsasuko udaletako Kultura Sailek sustatu dute *Post IV 2014* erakusketa, aurreko astean Zangozan mustuzena. *Buitres, delfos, libélulas, hombres y mujeres* izenburua duen erakusketa ondu dute Greta Alfarok (Nafarroa), Bego Antonek (Bilbo), Naia del Castilok (Bilbo) eta Cristina Lucasek (Jaen). Erakusketa martxoaren 13tik apirilaren 5era arte Altsasun izanen da ikusgai.

# Etxarri Aranazko abesbatzakoa izan nahi duzu?

**Koralak ahots berrien premia du eta interesatu guztiei gonbitea luzatu die**

Eguberrietako oporren ondoren, Etxarri Aranazko abesbatza lanean hasi da berriz ere. Udaberrirako zenbait egitasmo ditu esku-artean, baina egitasmo horiei behar bezala erantzuteko abeslari berriak behar dituela jakinarazi du. Abesbatzatik azaldu dutenez, "kontzertuei dagokienez, urte hasiera da urteko arorik lasaiena eta, alde horretatik, jende berria



hasteko garai egokia da". Etxarriko koralak ahots guztiak

indartzeko beharra du: tenoreak, baxuak, sopranoak eta kontralto-

### Harremanetarako

info@coraletxarriaranaz.com. Astean bi egunetan entseatzeko dute: asteartean eta ostiralean, 21:30etik 23:00etara.

ak. Interesa duten kantariei bi baldintza eskatzen dizkiete: abes- teko gogoia eta ilusioa izatea, bate- tik, eta, bestetik, entsegutara eta kontzertuetara joateko konpromisoa. Abesbatzatik gaineratu dute solfeo edota kantuko oinarriko ezagutza izatea lagungarria dela, "baina ez da ezinbestekoa".

## Golden Apple Quartet bisitan

**Larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. Ez dago sarrerarik**

Ezkontza batean aritu ziren aurreneko Loyola Garmendia, Eduardo Errondosoro, Manuel Romano eta Enrique Otxoa, 1986ko lastailean izan zen. Golden Apple Quartet izena hartu eta munduan barna hainbat ikuskizunen emanaldiak eskaini izan dituzte. 25. urteurrena zela eta

### Altsasurekin lotura

Taldeak 2002an kantu labur bat egin zuen Altsasuko Aitzindari Dantza Taldearendako, haren 20. urteurrena zela eta. [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)-en entzungai.

laukote donostiarrari euren historia ikuskizun batean laburbiltzea otu zitzairen eta, horrela, *Erase una vez... Los Golden* eman-



dia sortu zuten.

Laukoteak ohiko bere musika emanaldiak umorez ziprztindu ditu beti, eta bihar Altsasun izanen den ikuskizunean ez da gutxiago izanen. Ipuin baten itxura du emanaldiak. Off-eko ahots batek konta-

kizunari ekiten dio eta laukotea berehala lotzen zaio. Azken finean haien istorioa kontatzen ari baita: telebistako emanaldiak, ikuskizunen errepasoa, kantarien antzele izaera... Guztia elkarren jarraian doazen sketch segida batean.

## Punk-rock jaialdia Maisuenean

**Gaur, 23:00etan, Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean**

Olatzagutiko Gazte Asanbladak gaurko jaialdia antolatu du. Arrasateko Arkada Sozial taldeak street-punk doinuak ekarriko ditu Maisuenean. Abendu hasieran kaleratu zuen laukoak estudioko laugarren diskoa, *Hilorduko bizi* (Mauka, 2013) eta hango doinuak aletuko ditu Olatzagutian.

Gasteizko Eratuk, bestalde, rock doinuak eskainiko ditu Olatzagutiko gaztetxeke oholtzatik. Hamarkada honek adina urte dituen hirukoak bi disko argita-



ratu ditu. Azkenak joan den urtean ikusi zuen argia: *Ispilu iluna*. Zuzenean bi talde indartsu gaur Maisuenean.

### Rap gaua Arbizun

Bihar, larunbata, 23:00etan Arbizuko Argi Bidea elkarte

Arbizuko Gazte Asanbladak antolatutako rap emanaldia Iruñerriko Raperos de Emausek zabalduko du. Haiekin batera, Argi Bideako eszenatokia Pablo Hasel zeremonia maixuak partekatuko du. Rapeatzeaz aparte bat-bateko kantuan aritzen da Lleida-koa. 2005etik rapeatzen, 30 make- ta baino gehiago ditu argitaratuak. Baita zenbait poesia liburu ere. Doinuez lagunduta gizarte kritika eta sistemaren kontrako rapa egiten du, baina haiekin batera, gai pertsonalak lantzen ditu; guztiaz barre egiten dituen lanak ere baditu.

### Gospel doinuak Etxarrin

Igandean, 18:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean

Abenduan Olatzagutian aho- zapore gozoa utzi ondoren, The Upper Room taldeak kontzertua eskainiko du Etxarri Arana- tzen. Mikel San Josek (ahotsa) eta Iñaki Miguelek (pianoa) osatzen dute taldea. Gospela jotzen duen Euskal Herriko talde bakarra da. Gospela estilo sakona, aberatsa eta sentimental da, eta beste gene- ro batzuekin nahasketak egitea ahalbidetzen du: bluesa, soula edo countrya, besteak beste. Gospela- ren garai bateko eta gaurko doi- nuen errepasoa egingen du bikoak.

**erburua** KIROLDEGIA OLAZTI

**ikastaroen eskaintza: otsaila-maiatza lauhilabetea**

yoga indoor zikloa pilates

euskal dantzak (nagusiak eta gaztetxoak) aero dance mantentze soinketa

**Izen ematea: urtarrilaren 13tik 28ra**  
Erburua kiroldegan edo 948 564 512 telefonoan

**Txibiltxori**

Nerxa Reparaz Escudero  
Col. N-01282  
CPS-C02505-1/13-NA

TXIBILT XORI, Psicología Infantil  
García Jimenez 5, 1-B, Albasu  
676 971 508 · txibiltxori@eop.es

## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 94%	euria: 99%	euria: 55%	euria: 97%	euria: 98%	euria: 99%	euria: 98%
Min: 6 Max: 9	Min: 8 Max: 10	Min: 6 Max: 12	Min: 6 Max: 7	Min: 3 Max: 7	Min: 2 Max: 4	Min: 2 Max: 4

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	10.5	1.5	63.5
Etxarri A.	11.9	-0.3	65.3
Altsasu	8	-0.5	61
Aralar	3.5	-3	30.1
Urbasa	8	-5	71.4

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
24	30	6	14

**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

**Acrylcolor**

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Ilbeltzeko bazkide zozketa

ILBELTZEKO SARIAK:

1- EKAINBERRI KOBAZULOTARAKO 2 SARRERA, ARGIA ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA ETA GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA.

2- ARGIA ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA ETA GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA.

3- ARGIA ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA ETA GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA.

4- ARGIA ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA ETA GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA.

>> 11

galdera

Jone Rubio Mazkieran

Abeslaria

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



IRRATI-KUÑAK  
IRAGARKIAK  
BANNERRAK  
KARTELAK  
ESKUORRIAK

2014 MATRIKULAZIO KANPAINA

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

diseinua & inprimatzea

info+ 948 564 275 argi@guaixe.net

**1. Nola hasi zinen abesten?**  
Umenintzenetik abestu dut. Betidanik gustatu izan zait. Eskolan Haur Kantari jaialdira joaten hasi ginen eta institutuan txirulako kontzertuetan ere abesten nuen. Gero bi urtez musika eskolara joan nintzen gitarra jotzen ikasteko. Gitarra jotzen eta abesten hasi nintzen. Trikitixa eta panderoa ere jotzen ditut. Baina abesteko ikastaroak ez ditut egin. Hurrengo ikasturtean Gasteizera joango naiz ikastera eta, agian, ikastaroren batera joango naiz.

**2. Noizbait profesionalki abeslaria izatea pentsatu duzu?**  
Nire ustez oso zaila da musikaz bizitzea. Hobe ez pentsatzea. Hobbie bat da. Etortzen dena.

**3. Telebistan abeslarientzako programa asko daude, noizbait pentsatu duzu programa horietara aurkeztea?**  
Jende asko aurkezten eta joaten da programa horietara, baina jende gutxi bizi da horretaz. Programatik pasa ondoren ahazten dituzte.

**4. Askotan publikoaren aurrean abestu duzu. Nolako esperientzia izan da?**  
Haur Kantaldi Jaialdiarekin Elizondan, Gayarren, BECen... abestu nuen. Jaione Diazekin iritsi nintzen finalera eta bigarren geratu ginen. Altsasuko festetan udaletxean ere abestu nuen, azken egunean. Hasieran oso urduri eta dardarka hasten nintzen. Azkenean pentsatu dut hoberena ongi egitea dela eta urduri jartzen banaiz gaizki egingo dudala. Beraz, hobe lasai egotea.

**5. Lurrazpi tabernan kontzertua eman zenuen. Haize Berriak bandarekin Queen-en omenezko kontzertuan ere kantatu zenuen. Esperientzia ezberdinak izan dira, ez?**  
Altsasuko festetan abestu ondoren Peiok, Lurrazpiko jabeak, deitu ninduen eta esan zidan ea nahi nuen tabernan abestu. Hasieran ezetz esan nion pentsatzen nuelako ez zela inor joango. Azkenean baietz eta ongi. Publikoaren aurrean bakarrik abesten nuen lehen aldia zen. Baina, lagunaren aurrean abestea bezala izan zen. Jendea gustura egon zen. Haize Berriak bandarekin abeslari gehiago geunden eta elkar ezagutzen genuen guztiok.

**6. Familiak zer esaten dizu? Eta lagunek?**  
Haiek beti animatzen naute. Gurasoei esaten diote ahots polita dudala.

**7. Zer motatako abestiak abesten dituzu?**  
Lagunek esaten didate negar egiteko abestiak kantatzen ditudala. Askotan negar egiten hasten dira

abesten dudanean. Sentimenduetara jotzen dut.

**8. Letrak idazten dituzu?**  
Ez. Ez daukat inspiraziorik. Noizbait saiatu izan naiz baina ez zait ezer bururaten. Gitarrarekin melodiak egin ditut, baina letrak ez.

**9. Abesten duzunean zerbait berezia sentitzen duzu?**  
Bai. Sentimenduak ateratzeko edo adierazteko modu bat da.

**10. Zerbait berezia egiten duzu ahotsa mantentzeko?**  
Festetan udaletxean azken egunean abestu behar nuenez ezin izan nuen edari hotzik hartu. Kontu handiarekin ibili behar naiz ahotsa ez galtzeko.

**11. Irlandara joan zara. Han abestuko duzu?**  
Irlandan kultura musikal handia dute. Irlandako osabak banjoa jotzen du eta bazkarietan edo afarrietan denek instrumenturen bat jotzen dute eta abesten dute. Trikitixa eraman ohi dut Irlandara han beraiekin jotzeko.